

Osatu berri



Osakidetza

2013ko apirila | 9. zk.

IRITZIA | 9

Sedentariismoa eta obesitatea

GURE ELKARTEAK | 12-13

Gautena

GERTUTIK | 18-19

Ibai Zabala

EUSKARA OSAKIDETZAN | 20-21

Baga Biga blog

A group of seven healthcare professionals, including men and women, are posed on a modern staircase with a metal railing. They are all wearing white lab coats and have stethoscopes around their necks. The background shows a building with large glass windows and some greenery in the foreground.

**PRAKTIKA KOMUNITATEAK,
ZERBITZUA HOBETZEKO PROFESIONALEN
ETA PAZIENTEEN ELKARLANA**

X. LEGEALDIKO OSASUN SAILAREN LERRO NAGUSIAK

Hasierak gogorrak dira beti. Hasiera onik nahi ez dutela diote herri batzuek, eta, beste batzuek, ordea, txarto hasitakoak amaiera txarra duela. Legealdi berriari hasiera eman eta gero, Osakidetzako sailburuak Eusko Legebiltzarraren Osasun eta Kontsumo Batzordearen 2013ko otsailaren 18ko Agerraldian dokumentuaren arabera, euskara arloko zeregin interesgarriak eta egingarriak ditugu hizpide, are gehiago egile eta hartzailerik garen errealitatea aintzat hartuta. Hori hobeto ulertzeko, "Osasun Saileko lerro estrategikoak" txostenaren adierazpen batzuk aztertu ditzagun:

1. aipamena

Lehenengo aipamena Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren 8/1997 Legeko hirugarren printzipioa da, ekitatea alegia. Hala izango bada, osasun arloko desberdintasunik ez izateko konpromisoa hartu behar da, eta ekitatea aipatzean gogoratu behar da pertsonen osasun sisteman euskaraz artatuak izateko eskubide ukazina dutela.

Osasun arloan giza- eta gizarte-harremnak oso garrantzitsuak dira eta pazientearekiko komunikazioak eta enpatiak zerbitzuaren kalitatean eragiten dute. Horrela, bada, pertsona guztiei asistentzia sanitarioa haien eguneroko hizkuntzan (euskaraz edo gaztelaniaz) jasotzeko bermea eman behar zaie.

Hala bada, osasun arlotik euskalduntzea bultzatuko da, euskarekiko eta hizkuntzarekiko erantzukizunaz ez eze, kalitateko zerbitzu sanitario emanaz ere bai. Paziente eta profesional euskaldunen eskubidea izateaz gain, hurbiltasuna eta konfiantza ere eragotzen ditu eta kalitate asistentziala hobetu.

2. aipamena

Bigarren aipamena Osabide Globalari buruzkoa da. Lehen Mailako Arretara hedatzeko asmoa dago eta, hala, pazienteen historia klinikoa bakarrerantz pauso bat gehiago emango dugu, Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizial biak kontuan izanda.

3. aipamena

Hirugarren aipamenean Osakidetzako Bigarren Euskara Planaren helburu nagusien aurrerapena ematen digu: Planean proposatuko diren jarduerak guztiek lerrokatuta egon beharko dute hizkuntza eskubideak errespetatzeko helburuarekin. Halaber, langileen preferentziatzko hizkuntzari ere erreparatuko zaio.

Harira itzuliz eta geure burua ere aztergai izanik, aldizkari sanitarioa pazientearen eta langileen esku jartzen da zentro, erakunde eta ospitaleetan. Are gehiago, etxeetara ere banatzen da doako zerbitzuaren bitartez, eta kalitateko argitalpena lortzeko bali-

bideak jarri ditugu martxan: kazetari eta disainugile profesionalak, euskara teknikariak, argitaratzeko datak eta ale kopurua, profesional sanitarioen parte-hartzea.

Bigarren aipamenari dagokionez, arlo asistentzian diharduten mediku eta erizainek Osabide Global programa informatikoa erabiltzen dute eguneroko (diagnostikoak, tratamenduak eta preskripzioak, ezintasun iragankorreko parteak, bilakaera orriak, ekintza prebentiboak), eta, programa gaztelaniaz dagoen arren, euskaraz egiteko asmoa agerikoa da.

Hirugarren aipamenari dagokionez, Osakidetzako Administrazio Kontseiluak

2005eko maiatzaren 27an onartutako Euskara Planak sei urteko iraupena zuen. Horren ondorioz, Euskara Plana berritzeko sasoia ailegatu zaigu (2013ko Euskara Plana).

Gogoko bidean aldaparik ez! Sailburuaren agerraldiko hitzaldia erabatekoa izan zen; Osakidetzan euskararen erabilera handitzearen eta bezero eta pazienteen hizkuntza eskubideak errespetatzearen aldeko adierazpen argia. Osakidetzako enplegatu guztien ardura eta betebeharra da sailburuaren helburu hauekin lerrokatzea geure eguneroko jarrerak eta portaerak.

Aurrera egin dezagun!

APIRILA

'DOWN SINDROMEA ETA BESTE KROMOSOMOPATIAK' JARDUNALDIA

Apirilaren 19an, Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko ekitaldi aretoan 'Down Sindromea eta beste kromosomopatiak: ikasgai ikasiak'- deritzon jaioaurreko baheketari buruzko jardunaldia egingo da.

Jardunaldia emaginei, biokimika, ginekologia eta obstetrixia espezialistei, genetistei, epidemiologoei eta kudeatzaileei dago zuzenduta.

'SINDROME KORONARIO AKUTUA LEHEN MAILAKO ARRETAN' JARDUNALDIA

Apirilaren 20an, goizeko 10:00etatik 14:00etara Bizkaiko Sendagileen Elkartearen, Bilboko Ledesma kaleko areto nagusian egingo da 'Sindrome Koronario Akutua Lehen Mailako Arretan' jardunaldia.

EUSKARA IKASTAROAK: UDAKO DEIALDIA

Apirilean irekiko da udako euskara ikastaroetarako deialdia.

Eskaerak egiteko epea: apirilaren 22tik maiatzaren 5era (biak barne). Eskaerak Osakidetzako webguneko Euskara atalean egin beharko dira.

Informazio gehiago Osakidetzaren Euskara webgunean.

2013KO TREBAKUNTZA: UDAZKENEKO IKASTAROAK

Euskara Zerbitzu Korporatiboak eta Prestakuntza Zerbitzu Korporatiboak ikastaro berezituak bigarren edizioa jarriko dute martxan maiatzean.

Ikastaro bi antolatuko dira: *1- Ahozko jariora lantzen 2HE:* Ikastaroak 40 ordu izango ditu. Guztira 4 talde antolatuko dira: Bizkaian 3, eta Gipuzkoan 1.

2- Birziklatzea 2HE: Ikastaroak 40 ordu izango ditu. Talde bakarra antolatuko da, Bilbon.

Informazio gehiago: Euskara Zerbitzu Korporatiboaren Prestakuntza arloa (945 00 62 66 / 945 00 64 06) eta) eta Zerbitzu Erakundeetako Euskara Zerbitzuak.

MAIATZA

EUSKAL HERRIKO ERIZAINZAKO VIII. JARDUNALDIAK

Maiatzaren 29an eta 30ean, Gas-teizko Europa Biltzar Etxean, Euskal Herriko Erizaintzako VIII. Jardunaldiak egingo dira.

Gaia: 'Zaintzen eta eraberritzen'.

HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK EGIAZTATZEKO 2013 - 1. GO AZTERKETALDIA

Azterketa idatzia: 2013ko maiatzaren 18an (larunbata) izango da hiru lurraldeetan.

Argitaratzailea:

Osakidetza
 Araba kalea 45, 01006
 Vitoria-Gasteiz
 Tel.: 945 006 314
osatuberrri@osakidetza.net

Erredakzio kontseilua:

Xabier Arauzo
 Juan Elorriaga

Euskara zuzentzaileak:

Juan Elorriaga
 EMUN lana euskalduntzeko
 kooperatiba

Koordinatzailea:

Arteman Komunikazioa

Tirada:

7.000 ale

Lege gordailua:

ISSN 2254-450X

Diseinua eta maketazioa:

Arteman Komunikazioa

Argazkiak:

Arteman/Josetxo Arantzabal

Inprimategia:

Gertu (Oñati)

Osatuberrin parte hartu nahi?

Zeuren protagonista izan zaitzake aldizkarian. Atal hauetan parte hartzeko, idatzi osatuberrri@osakidetza.net helbidera.



AURKIBIDEA

2	AGENDA
4	JAKINBERRI: Azken berriak motzean
5 8	SAKONEAN  Praktika komunitatea
9	IRITZIA Sedentarismoa eta obesitatea
10 11	OSASUN URRATSAK Osanaia
12 13	GURE ELKARTEAK Gautena
14 16	PLAZATIK  Galdameseko auto klasikoen museoa
17	LANBIDEA Innovalan
18 19	GERTUTIK Ibai Zabala
20 21	EUSKARA OSAKIDETZAN Baga Biga blog
22 23	ATZERA BEGIRA Medikuen biografiak & Epidemiak
24 25	JARDUNALDIA 18. Kongresua
26	OSASUN-ZENTROAN Sondika
27	TXAPELA BURUAN Leintz Gatzaga



BATXILERGOKO IKASLEEK ANATOMIA PATOLOGIKOA BISITATU DUTE

Unamuno Institutuko batxilergo-ko 2. mailako 24 ikaslek otsailaren 14an AUO- Txagorritxuko Anatomia Patologikoa zerbitzua bisitatu zuten. Esperientzia hau ikastetxe honekin 1990etik egin izan da. Ikasleek zerbitzburua den Isabel Guerraren eskutik nola egiten den minbiziaren diagnostikoa edo autopsia bat ikus dezakete. Era berean, Guiomar Perez de Nanc-laresek zuzentzen duen Ikerketako laborategian genetika molekularren teknikekin praktikatzeko aukera dute.

OSPITALEA BAME-EK NAHIAGO DITUZTEN 20REN ARTEAN

Lanbide Antolamenduko Zuzendaritza Nagusiak eta Kanaria Handiko Las Palmas Unibertsitateak 2011-2012ko deialdian 3.632 BAME esleipendunei egindako inkestaren arabera, Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea egoiliarren epealdia egiteko nahiago dituzten 20 zentroen artean dago. Izan ere, Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea 18. postuan dago.

OSAKIDETZAREN 30.URTEURRENA

Maiatzaren 19an 30. urteurrenaren ospakizunak egingo dira Osakidetza Legearen onespena gogoratzeko. Izan ere, 1983an osasun-zerbitzu nazionalaren eredia oinarri hartuta, Erakunde autonomo gisa eta diru publikoz konfiguratu zen.



GORLIZ OSPITALEA BENCHMARKING KLUBAN SARTU DA

ARAZO KRONIKOAK ETA DEPENDENTZIAK ARTATZEKO OSPITALEEN ARTEKO KLUBA DA

Benchmarking anglizismoa kudeaketaren arloan erabiltzen dute adierazteko antolakuntza batean prozesu sistematiko eta etengabeko bat dagoela, zeinaren bidez konparatiboki ebaluatzen baitituzte antolakuntzen ekoizpenak, zerbitzuak eta lan-prozesuak.. Hona hemen izenpetu dugun ospitaleak: Monte Naranco (Oviedo), Gorniz, Cruz Roja (Gijón), La Fuenfria (Madrid), Guadarrama (Madrid).

ERRETIRO PARTZIALEKO PLANA ETA ERRELEBO-KONTRATUA

Gobernu Kontseiluek "Euskal Autonomia Erkidegoko langile finkoentzako Erretiro Partzialeko Plana" onetsi du. Horri esker, errelebo-kontratua berreskuratuko da eta aurreko araudiaren araberako erretiro partziala eskatzeko aukera izango dute langilek, plana onesten denetik (2013ko martxoaren 27an) 2018ko abenduaren 31ra arte. Aurretiko erretiroa hartu nahi eta eskakizunak betetzen dituzten 61 urte-tik gorako langileek lanaldia % 25era murriztu ahal izango dute. Hori horrela bada, lan-politsetako 2.100 lagun baino gehiagok lanpostu horietan aritzeko aukera izango dute lanaldiaren %75era arteko kontratuan.

Hortaz, Administrazio Orokorreko langileei ez ezik Osakidetza langileei ere eragiten die, betiere, Gizarte Segurantzak aurreikusitako baldintzak betetzen badituzte.

ERIZAINTZA UNIBERTSITATE ESKOLA

Vitoria-Gasteizko Erizaintzako Unibertsitate Eskolaren XXIV. Jardunaldi Zientifikoak -"Hitza, isiltasuna eta harremana osasunean"- otsailaren 28 eta martxoaren 1ean ospatu ziren. Bertan ikasle, irakasle, paziente eta osasun arloko profesionalak bildu ziren zainketa hitzak, isiltasunak eta harremanak daukaten eraginaz hausnartuz. Inaugurazio hitzaldia "La sabiduría del corazón en Enfermería" José Carlos Bermejo Higuera jaunaren esku izan zen. Bertan, Madrilgo Osasuna Giza-tiartzeko Zentroko zuzendariak inteligentzia emozionalaren eragina erizaintza zainketa azaldu egin zuen.

Laster hitzaldi hau eta jardunaldian gertatutako beste solasaldiak ikusgai egongo dira Vitoria-Gasteizko Erizaintzako Unibertsitate Eskolak zabalduko duen youtube kanalean.



BANIKOARAN SUNO GAYA OSASUN ZENTROA

Suno Gaya Osasun Zentroa 10 oheko eta farmazia daukan ospitale txikia da izatez. Farmaziak ospitalea hornitzeaz gain, zonaldeko farmazia pribatuan medikamentuak ordain ezin ditzaketen ia 200.000 pertsonari ematen die arreta, eta merkatu ibiltarietako medikamentu faltsuak kontsumitu behar dituzte nahitaez.

Asmoa hau da: 2013ko uztailean bertara joateko prest dauden medikuntzako eta erizaintzako profesional bi lortzea, Bilbo Eskualdearen eta Suno Gaya Osasun Zentroaren artean denboran iraungo duen lankidetzarako oinarriak jartzeko. Era horretan, lan egiteaz gain, bertako langileei prestakuntza eman diezaiekete, ahal den neurrian, beraiek autokudeatu daitezela baita asmoa.



PRAKTIKA KOMUNITATEAK, ZERBITZUA HOBETZEKO PROFESIONALEN ETA PAZIENTEEN ELKARLANA

Donostia Unibertsitate Ospitalean urtebete pasatxo daramate praktika komunitateen bitartez erakunde barneko lan aberatsa egiten. Horren bitartez, unitateen arteko mugak apurtu eta bertako profesionalak zein pazienteak metodologia zehatz batekin hilero batzarretan elkartu eta ezagutza partekatzen dute, jasotakoa profesional eta pazienteentzat erabilgarria izan dadin.

Izarki Berrikuntza eta Ezagutza Kudeatzeko unitateak Donostia Unibertsitate Ospitaleko profesionalen prestakuntza lantzen du.

Halako batean, Ospitaleko Zuzendaritza Kontseiluaren hausnarketa baten ondorioz, erabaki zen Ospitalean unitate bakoitzean dagoen ezagutza partekatu eta bertan zabaldu beharra zegoela. Gabeziarik handiena zen ez zegoela horretarako eredu bat eginda eta langileen artean zabaldua. Unitateen barruan, esaterako, saio klinikoak oso barneratuta zeuden medikuen artean, baina hortik harago ez zegoen beste ezer.

Hortaz, aholkularitza bat kontratatu eta hark ezartzeko moduko eredu aurkeztu zuen. Jarraian,

Izarki Berrikuntza eta Ezagutza Kudeatzeko unitateak, Ospitaleko beste hainbat eragilerekin batera, eredu hori aztertu, aldaketak egin eta martxan jarri zuen 2011n.

Bi helburu nagusirekin hasi zen Izarki lanean: bata, Ospitaleko unitate desberdinetako langileak batzen hastea, eta, horren bitartez haien arteko harremana hobetzea; eta, bestea, eredu hori martxan jarrita ezagutza bera zabaltzea eta partekatzea.

Hurrengo pausoa unitatez unitate praktika onak jasotzea izan zen. Sei hilabetez Donostia Unibertsitate Ospitaleko 60 unitateak bisitatu zituzten, bertako kideei galdetuz zer premia nagusi ikusten zituzten antolakuntza eta hobekuntza alorrean, zer iritzi zuten



praktika komunitateei buruz, zer gai landuko lituzketen talde horietan eta zein beste unitaterekin nahi zuten elkarrekintza garatzea. Prozedura horri esker 200 praktika inguru on jaso zituzten.

BARRUAN ETA BARRURA BEGIRA LAN EGIN

Izarki Unitateko arduradun Josune Retegik azpimarratu du hasieratik oso argi zutela barruan eta barrura begira landu nahi zituztela prozesu guztiak. "Askotan halako prozesuak martxan jartzen dira aurretik barruan galdetu gabe; baina guk oso argi genuen profesional guztiak erabat informatu nahi genituela, eta hala egin dugu", nabarmendu du Retegik.

Izarkiko arduradunek, praktika onak eta iradokizunak jasotzeaz gain, unitateetako ordezkarietara gidatu zieten zein beste unitaterekin harremanetan jarri nahi zuten; eta hori jakin ostean, unitate horiek elkarrekin harremanetan jarri zituzten.

METODOLOGIA DESBERDINA

Honako hau metodologia berria izan da Donostia Unibertsitate Ospitaleko profesionalentzat. Bertako profesionalak ohituta daude gida klinikoak, liburuak, protokoloak... egiten, baina beti bukaera zehatza

DIZIPLINA ANITZEKOA

Praktika komunitatearen ereduaren balio handienetako bat da diziplina; eta sekzio askotako profesionalak elkarlanean jartzen dituen.

duen helburu batekin. Kasu honetan, baina, prozesua ez da bukatzen, beti dago gai berriren bat, hobetzeko zerbait... Talde hauetan beste erritmo batean lan egiteko aukera dute, presio txikiagoarekin, emaitza ez delako berehala behar. "Hasieran, profesioetako batzuek taldeek noiz arte jarraitu beharko zuten biltzen eta noiz bukatuko zen galdetzen zuten; gerora, konturatu egin dira uneoro irteten direla galdera eta gai berriak eta beti dagoela zer landu eta zer hobetu", azaldu du Retegik.

“Foro hauetan guztien iritzia onartzen da, are gehiago, derrigorrezkoa da guztiek iritzia ematea; eta ez dago parte hartzaileen arteko hierarkiarik”.

Parte hartzaile guztien iritzia profesional sanitarioena, ez sanitarioena zein pazienteena izanontzat hartzen dira, baina lan egiteko modu horizontal horretan salbuespen bakarra da gaixotasun baten ondorio zehatzak aztertzerakoan azkeneko hitza medikuek

duela. Izan ere, gertatu izan da pazienteren batek, adibidez, sintoma bat gaixotasun baten aurrekarizat hartzea, baina medikuek uste hori ezeztatzea. Hain zuzen ere, asmoa da aurrerantzean talde horietan egindako lana eta jasotako ondorioak edozeinentzat erabilgarri izatea.

PROFESIOALEN DENBORA ETA MOTIBAZIOA

Praktika komunitateetan parte hartzeko Donostia Unibertsitate Ospitaleko profesionalak ez daude liberatuta; beraiek antolatu eta ahal duten lekutik hartzen dute denbora bileratara joan eta ekarpenak prestatzeko. Hala ere, ahalegina egin eta taldeetan parte hartzen jarraitzen dute oso motibatuta daudelako. Hala jasota dute Izarkiko arduradunek, Gabonetan egin zuten *word coffe*-an profesional gehienek eskertu zutelako metodologia horren formatua eta ematen dituen emaitzak. "Berehalako emaitzak behar ez direnez, gure lanari buruz patxadaz eta lasaitasunez hausnarketa egin dezakegu, eta halako espazioak izatea oso eskertzekoa da".

Metodologia honek ekarri duen beste aldaketa garrantzitsu bat izan da Ospitalean dau-

den unitate desberdinetako profesionalak harremanetan jarri izana. Halako taldeetako batean esku hartzen duen Xabier Arrazola psikologoak nabarmendu du hori oso positiboa dela. “Unitate bakoitzean daukagun lan eta erritmoaren erruz, ez daukagu harremanik gainontzeko profesionalekin. Praktika komunitateei esker, ordea, muga hori apurtzen ari gara”.

GAIXOAK ERE EZTABAIDAGUNEETARA GEHITZEA

Oso aberasgarria den beste berrikuntza bat da gaixoak ere talde horietara gehitu izana. Idoia Sukia fisioterapeutaren ustetan, “Gaur egun pazienteak ez dira konformatzen profesionalek esandakoarekin, gehiago jakin nahi dute. Gainera, oso ohikoa da medikuarekin egon ondoren, etxera egin gabeko galdera askorekin itzultzea. Horregatik hasi dira protagonista bilakatzen eta hori oso garrantzitsua da osasungintzarako”. Sukia Arnasketa arloko praktika komunitatean dago eta, bertan bada paziente bat taldeetan buru-belarri parte hartzen duena.

Horren harira, Xabier Arrazolak ere asko eskertzen du pazienteek parte hartzeko egiten duten ahalegina, baina jakitun da pazienteentzat zaila dela. “Beraiek inplikazio maila handia behar dute taldeetan parte hartu eta galderak egiterakoan gertatu zitzaie-na berriro bizi behar dutelako; eta hori ez da erraza”. Hala ere, bada beldur hori gainditu eta taldeetan ekarpen handiak egiten dituztenak, badakitelako beraien esperientzia lagungarria izango dela etorkizunean osasun arazo bera izango duen edozein artatzeko.

Izan ere, praktika komunitateetan lanean dabiltzan profesional guztiek ondorioztatu dute pazienteen parte-hartzearekin emaitza askoz hobekak lortu daitezkeela. “Askotan pazienteek eta beraien galderek bideratzen gaituzte, baita kritikek ere. Guk guztiak onartzen ditugu, irekita gaudelako gauzak hobetzeko eta hala eskatzen bada lana beste modu

batean egiteko”, adierazi du Xabier Arrazolak.

“Oso garrantzitsua da gaixoa artatzen denean berarekin gaixotasuna bere osotasunean lantzea. Hala eginda, alta ematerakoan gaixoa lasai irtengo da, heziketa bat jasota eta beldur guztiak uxatuta”.

LANA AUERRERATUTA

Arrazolaren kasua berezia da, bere unitatean, Errehabilitazio kardiakoan, urte asko daramatzatelako astero gaixoen nondik norakoak diziplina anitzeko taldeetan aztertzen. Talde horretan psikologoa, kardiologoa, errehabilitazioko medikua, fisioterapeuta eta erizaina daude eta gaixoari farmakologikoki, gaixo moduan eta pertsona bezala arreta egiten diote. “Nik uste dut gure unitatea luxuzkoa izan dela: nik hasieran ebaluazio bat egiten dut eta, kontuan hartzeko zerbait ikusten badut, beste guztiei zuzentzen natzaie eta guztiok aztertzen dugu. Modu horretan, gaixoari alderdi guztietatik arreta eman eta babestuta egotea bermatzen dugu”.

Eta, era berean, oso garrantzitsua da gaixoa artatzen denean

berarekin gaixotasuna bere osotasunean lantzea. Hala eginda, alta ematerakoan gaixoa lasai irtengo da, heziketa bat jasota eta beldur guztiak uxatuta. Eta kasu horietan praktika komunitateetan parte hartzeko pausoa errazago eman dezake, beldur eta zalantza handienak uxatuta beste batzuei lagun diezaiekeelako.

SENITARTEKOEN PARTE HARTZEA

Gaixotasun batzuek duten konplexutasuna kontuan hartuta, praktika komunitateetako ateak gaixoen senideentzat ere irekita daude, nahi izanez gero parte hartu dezaten. Gainera, gaixo batzuek ezin dituzte beraien gaixotasunaren prozesuko une guztiak gogoratu, eta halakoetan senideek hutsune hori estali dezakete. Iktusaren taldean, esaterako, bi senidek parte hartzen dute hilero.

Informazio gehigarri asko emateaz gain, halako eztabaidaguneetan gaixo eta senideek ere parte hartzeak zenbait kasutan medikuek gaixotasunari begira eduki dezaketen hoztasuna apurto eta gaixotasunak gizatiartu egiten dituztela onartu dute osasungintzako profesionalek.

LASTER PRAKTIKA KOMUNITATE GEHIAGO

Donostia Unibertsitate Ospitalean hamar praktika komunitate daude osatuta, eta horietan 110 pertsona

110 PERTSONA LANEAN

Donostia Unibertsitate Ospitalean 110 profesional daude praktika komunitateetan lanean. Argazkian Bizitzako azken etapako gaixotasuneko eta Iktus taldeetako kideak.





daude. Kasu gehienetan hilero batzen dira, eta gehienez jota bi orduko batzarrak egiten dituzte. Hauek dira lanean dauden taldeak: Iktus, Pixa egiteko disfunczio neurologikoa, Arreten jarraipena, Errehabilitazio kardiakoa, Haurren elikaduragatiko alergiak, Loaren apnea, Sarbide baskularra, Bizitzako azken etapako gaixotasuna, Ospitaleratutako pazientearen elikadura eta EPOC.

Talde berriei dagokienez, dagoeneko Osakidetzako beste 10 pertsona ari dira ikastaroa jasotzen. Hamar langile horiek praktika komunitateetako eragileak izango dira eta ondo bidean beste 10 talde berri sortuko dira. Gainera, Izarkitik jakinarazi digute azken hilabeteetan lehen mailako arretakoak, osasun-zentroetako langileak eta elikadura lantzen dutenak ere hasi direla parte hartzen.

LANDUTAKO EZAGUTZA PUBLIKO EGIN

Asmoa da aurrerantzean lantalde bakoitzak landutakoa eta jasotako ondorioak ezagutzera ematea, baina Josune Retegik azaldu digu talde bakoitzak erabakiko duela zein zabalkunde mota eman: “Iktus taldekoek nahi dute jende guztiari zabaltzea eta gaiari buruzko foroa sortzea; Errehabilitazio kardiako-

koek, aldiz, bakarrik beraien pazienteek ikustea nahi dute”.

Izarkik plataforma bateratua jarri du guztientzat sarean eta talde bakoitzaren premiaren arabera egongo da ikusgai landutako eta partekatutako ezagutza, beste gaixo eta profesionalentzat lagungarria izan dadin. Retegik azpimarratutakoaren arabera, gero eta joera handiagoa dago gaixotasunei buruzko informazioa Interneten bilatzeko, baina aurkitutakoa beti ez da fidagarria. Horregatik, plataforma honek informazio erabilgarri eta fidagarria eskainiko du, besteak beste. Hori sortuta, baina, ez da lana bukatzen, eta praktika komunitateek lanean jarraituko dute, orain arte bezala, motibatuta.

“Izarkik plataforma bateratua jarri du guztientzat sarean eta talde bakoitzaren premiaren arabera egongo da ikusgai landutako eta partekatutako ezagutza, beste gaixo eta profesionalentzat lagungarria izan dadin.

EZAGUTZA ZABALDU

Esperientzia, ideia eta praktika elkartrukatura, posible da atzetik etorriko diren profesional eta pazienteentzat oso baliotsua izango den ezagutza uztea.



COMUNIDADES DE PRÁCTICA, MEJORA EN GRUPO

Hace ya más de un año que en el seno del Hospital Universitario Donostia se pusieron en marcha las comunidades de práctica a iniciativa de Izarki, Unidad de Innovación y Conocimiento. La de las comunidades de práctica es una metodología específica que en el Hospital Universitario Donostia ha puesto a trabajar en grupo a profesionales de diversas disciplinas e unidades. Además, en algunos casos están participando también pacientes de diversas enfermedades o dolencias. Estos grupos que se reúnen una vez por mes, analizan dolencias o enfermedades concretas desde diferentes ámbitos, para así darle la mejor solución. Tanto los participantes –más de 110 personas-, así como sus precursores están muy satisfechos y motivados con los resultados obtenidos. En estos momentos, otras diez personas están recibiendo formación para traccionar otras tantas comunidades de práctica.

El objetivo a medio plazo es dar a conocer las conclusiones recogidas en estos grupos de trabajo para que sean útiles para otros profesionales y pacientes. Para ello, Izarki está trabajando en una plataforma en red.



Aritz Urdampilleta

¹Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV-EHU) irakaslea eta ikertzailea. Farmaziako Fakultatea.

²Kirol Irakaskuntzen Ikastetxe Publikoan irakaslea. KIROLENE. Eusko Jaurlaritzak.

³Kirolerako eta Nutriziorako Aholkularitza. Aldizkako Hipoxiako Estimuluekin Entrenamenduak Mendizale eta Alpinistekin. K2 Kirol Zentroa. Vitoria-Gasteiz. Giza Dietetika eta Nutrizioan eta Jarduera Fisiko eta Kirolerako Zientzietan ikaslea.

Harremanetan jartzeko: aritz.urdampilleta@ehu.es

SEDENTARISMOA ETA OBESITATEA: GIZARTE OSASUNERAKO ARAZO LARRIA

Jarduera fisiko faltaren kalteak eta onurak osasunean


Gaur egungo gizartean prebalentzia handiko gaixotasunak (diabetesa, obesitatea, minbizia, etab.) ugartuz doazela jakina zaigu eta, zuzenean edo ez, guztiek daukatela loturaren bat elikatzeko ohitura desegokiekin eta sedentarismoarekin. Ez dago dudarik, jarduera fisiko egitea beharrezkoa zen, gorputz osaera orekatua mantentzeko, eta gizakion geneak horretarako prestatuta zeuden. Egun, aldiz, ibili behar dugula pentsatzeak ere gaixotu egiten gaitu!

Ariketa fisiko egiteak eta ondo elikatzeak daukaten garrantzia handia da beraz, eta bizi kalitatea hobetzen du erabat; ondorioz, bizimodu hori bultzatzea zenbait gobernuaren osasun politika publiko bihurtu da. Hala ere, urteetan zehar sortuz joan diren interes ekonomikoek eta ohiturek zaildu egiten dute esku-hartze eraginkor bat burutzeko, eta horrek eragin zuzena du gizartearen osasunean eta heziketan.


Bestalde, ikerketen arabera gure ingestio kalorikoaren %30 bat murriztuko bagenu, gure bizi itxaropena asko handiagotu litekeela frogatu da.



Ebolutiboki gizakiak jan ahal izateko aurretik jarduera fisiko (ehiza) egitea beharria zegoen.



Egun aldiz, geroz eta teknologia aurreratuagoak... sedentarismoa garamatza.



Ehizatu gabe do lanik egin gabe ere jana beti eskuragarri dugu!

1. Irudia. Egungo gizartean aurrerapausoak teknologian eta atzerapausoak osasunean. (Egilearen irudia).

Argi dago osasuna mantentzeko ibili edo mugitu beharra daukagula. Izan ere, behar hori galtzen dugunean agertzen dira zahartzaroren efektu nabariak.

Zientzialariok erabateko adostasuna daukagu, jarduera fisiko egoki batek, erregulartasunez egiten bada (gutxienez astean 3-4 egunetan ordubeteko saioak edo egunero 30'), eta jateko ohitura onak ezinbestean laguntzen dutela ondorengo aldagaietan: (1) bizi kalitatea hobetzen dute, (2) hainbat gaixotasun kronikoren garatzea eta larriagotzea prebenitzen dute, eta, halaber, (3) zahartzearen eraginak atzeratzen laguntzen dute. Argi dagoena da egunero jarduera fisiko egiteak aurreko aldagai horietan guztietan laguntzen duela.

Aholkuak

Oro har, aholkatzen duguna, egunero 9.000 PAUSO ematea da (podometroekin kontrolatu dezakegu). Era berean, igogailurik ez erabiltzea eta beti eskaileretatik igotzea. Garraiatzeko txirringa edo oinez joatea eta astean 2-3 aldiz indartze ariketak egitea. Ikusi da ibiltze hutsarekin egungo gizartean ez dela nahikoa! Egunero 60' jarduera fisiko aerobikoa egitea aholkatzen da (bizikleta, igeriketa, ibiltzea, korri egitea...) obesitatearen aurrezaintzarako, hori guztia, betiere, elikadura orekatu bati loturik, egunean 8-12 baso ur hartuz eta DIETAN behar ez diren azukreak kenduz eta gantz onak hartuz (oliba olio, fruitu lehorrak...).

On egin!



2. irudia. Jar ezazu jarduera fisiko pixka bat zure plateretan... Nutrizioaren Egungo Nazionala 2011 (Urdampilleta A eta Martínez JM, 2010).

"OSANAIAK AHALBIDERATZEN DU PAZIENTEEI BURUZKO INFORMAZIOA HOBETO PARTEKATZEA"

INMACULADA SANCHEZ

OSAKIDETZAKO ERIZAINZAKO ZUZENDARIORDE AHOLKULARIA (*)

OSAKIDETZAK ERIZAINZAKO ZAINKETA ALORREAN LUZAROAN ERABILI IZAN DUEN ZAINERI APLIKAZIOA ZAHARKITUA GELDITU DELA-ETA, NAIA + PAKETE INFORMATIKOA ESKURATU ETA PREMIETARA EGOKITUTAKO HAINBAT MOLDAKETA EGIN OSTEAN OSANAIA SORTU DUTE. OTSAILEAN GALDAKAO-USANSOLO OSPITALEAN, ETA LAUDIOKO ZEIN LANDAKOKO OSASUN-ZENTROETAN OSANAIA APLIKAZIOAREN PROBA PILOTUA EGITEN HASI ZIREN, ETORKIZUNEAN OSAKIDETZA GUZTIRA ZABALTZEKO ASMOZ.



Zer dela-eta erabaki zenuten Osanaia indarrean jartzea?

Ordura arte zainketarako erabiltzen genuen Zaineri aplikazioa zaharkitua zegoen. Horregatik, Osakidetza Naia+ pakete informatikoa eskuratu eta egin genizkion moldaketekin Osanaia sortu genuen. Zainketa kudeatzeko modua berri beharra zegoen: balorazioa, jarraipena... Eta Zaineri aplikazioa ez zen erizaintzako gaur egungo beharretara ezta araudira ere egokitzen.

Aplikazio berria zuen beharretara egokitu duzue...

Bai. Lan erraldoia izan da, aplikazioa gure lan egiteko modura eta zainketa zein asistentzia eredura egokitu behar izan dugulako. NANDA sistemaren arabera zainketa egoera guztiak aztertu, NOC helburuekin lan egin dezakeen erizaintzako taxonomia txertatu eta paziente eta egoera bakoitzerako NIC esku-hartze proposena aurkitu. 200

erizainetik gora izan dira lanean, eta horietako hiru urtebetez aritu dira.

Osakidetza Informatika eta Asistentzia Zuzendaritza departamentuak buru-belarri ibili dira; baita Kalitatearen Zuzendaritzaordea ere.

Zein izan da zailtasunik handiena?

Zailtasunak baino gehiago, **erronkak**. Helburua izan da aplikazio honek Osakidetza esparru asistentzial guztietan zainketa kudeatu ahal izatea: hala, Arreta Espezializatuan (ospitalekoa), Lehen mailako Arretan eta Osasun Mentalean. Horretarako, 43 lantalde eta 200 profesional koordinatu behar izan dira maila desberdinetako erizainek erabiltzeko moduko erreminta egokitzeko.

Zein aldaketa nagusi ekarriko ditu Zainerirekin alderatuta?

Osanaia ahalbideratzen du sarean erabiltzen ditugun historia klinikoaren

beste erremintekin (Osabide Global eta Osabide-AP) informazioa partekatu ahal izatea. Modu horretan, erizaintzako landutako informazio kliniko beste edozein mailatakoen eskura jartzen da. Eta aukera ematen du, halaber, pazienteek edo beste profesionalak behar izanez gero, erizainen diagnostiko, emaitza eta esku-hartzei buruzko txostena eskura izateko.

Komunikazio eta prestakuntza prozedura bereziak burutu dituzue?

Aplikazioaren berri emateko, lehenik eta behin zuzendari eta prestakuntza arduradunengana jo genuen. Eta proba pilotua egiten ari den erakundeetan erizain eta mediku guztiei aurkeztu zaie **ekimena**. Horrez gain, Galdakao-Usansolo Ospitaleko eta Bizkaiko Barrualdeko osasun-zentroetan saio teoriko eta praktikoa jaso dituzte.

Helburua izan da aplikazio honek Osakidetza esparru asistentzial guztietan zainketa kudeatu ahal izatea. 43 lantalde eta 200 profesional koordinatu behar izan dira.

Aplikazio berri honek ondorioak jaso eta ikerketak egiteko aukera ematen du, ezta?

Bai. NANDA-NOC-NIC taxonomiak Ospitalizazioan, Lehen Mailako Arretan eta Osasun Mentalean zainketaren kudeaketa hobetzea errazten digu. Horri esker, lan egiteko modu bateratua ezarriko dugu eta berorrek jarraipena eta konparazioak egiteko bidea emango du, ikertu ahal izango direnak.

(*) Oharra: Inmaculada Sanchez ez da gaur egun Osakidetza Erizaintzako Zuzendaritza aholkularia. Apirilean, Ana Maria Chuecak ordezkatu du.

GALDAKAO-USANSOLO OSPITALEAN POZIK, PROBA PILOTUAREN ERRONKA ETA EMAITZAREKIN

LANTALDE PRESTUA.

Galdakao-Usansolo Ospitaleko lantaldea beti dago prest erronkei aurre egiteko. Argazkian, ezkerretik eskumara, Raquel Garcia, Sabin Sarrionandia eta Nerea Ingunza.



IAZKO OTSAILEAN JARRI ZUTEN MARTXAN ERIZAINTZARI ZUZENDUTAKO OSANAIA PROGRAMA PILOTUA GALDAKAO-USANSOLO OSPITALEAN, ETA LAUDIOKO ZEIN LANDAKOKO OSASUN-ZENTROETAN. GALDAKAO-USANSOLOKO ERIZAINTZAKO ARDURADUNEKIN IZAN GARA PROGRAMA PILOTUARI BURUZ GEHIAGO JAKITEKO ASMOZ ETA BERORREK DAKARTZAN ZAILTASUN ETA ABANTAILAK EZAGUTZEKO.

Galdakao-Usansolo Ospitaleko kasuan, hasiera batean Erizaintzako bi unitatetan ezarri dute programa pilotua: Kirurgia sailari dagokion 5Bn -28 oherekin- eta Medikuntza eta Hematologia saileko 7Bn -24 oherekin-. Programa pilotuaren ezarpena hiru astetan gauzatu zuten: bi planta horietako profesionalak 12 orduko ikastaro teoriko-praktikoa egin zuten lehenik eta behin; eta horren ostean, bi aste desberdinetan programa ezarri zuten aipatutako sekzioetan.

Galdakao-Usansolo Ospitaleko profesionalak Osanaia ekarriko duen aldaketa nagusien artean nabarmendu dute, Erizaintzaren alorrean erregistroak egiteko moduz gain, pazienteak bera artatzeko modua ere erabat aldatuko dela. Metodologian, zehazki, NANDA, NIC eta NOC oinarri hartzeak balioztatze sistematizatu eta eginkizunen plangintza zabalagoa ekarriko du.

Ospitale horretan 1992an Rose aplikazioarekin lanean hasi ziren, Osakidetza osoak Erizaintzan orain arte indarrean duen Zaineri programaren aurrekaria izan zena. Orduan ere aitzindaria izan zen Ospitale hau. Ospitaleko Erizaintzako zuzendari Sabin Sarrionandia azaldu zuten Ospitale hori

beti dagoela “prest halako erronkei aurre egiteko” eta nabarmendu zuten “erronkaren aurrean, bertako langileen jarrera **baikorra**”.

Izan ere, aplikazio informatikoa ezartzearekin batera, metodologia bera aldatu dute eta orain erabiliko duten taxonomia beste bat da. Horien artean, abantaila nagusitatu dute trazabilitatea, hau da, pazienteak dagoen lekuan dagoela erizainek berari buruzko informazioa une oro izango dutela, lehen ez bezala.

Abantaila nagusitatu dute trazabilitatea, hau da, pazienteak dagoen lekuan dagoela erizainek berari buruzko informazioa une oro izango dutela, lehen ez bezala.

PAZIENTEEN INFORMAZIO GEHIAGO

Pazienteei dagokienez, hauek igarriko duten onura nagusia da Ospitalera sartzearekin batera balorazio sako-

nagoa egingo zaiela. “Bete beharreko inprimaki zehatzagoak ditugu; lehen galdetzen zitzaien irekiagoa eta subjektiboagoa zen”. Gainera, Osanaia esker, pazienteei alta ematerakoan Erizaintzako zainketako txostena emango diete.

LANGILEEN ONURARAKO

Galdakao-Usansolo Ospitaleko Erizaintzako arduradunek jakinarazi dute Osanaia aplikazioa erabiltzeko “oso intuitiboa eta erraza” dela. Hasieran zailtasun puntu handiagoa ikusten diote, baina batez ere taxonomia, kontzeptuak eta lan egiteko modua aldatu direlako. “Berrira ohitzea da, besterik ez, eta abantailak ugariak dira”, ziurtatu zuten.

Aurrekari: *Antecedente, precedente.*

Baikor: *Optimista.*


Ekimen: *Iniciativa.*

Erronka: *Reto.*

Nabarmendu: *Destacar, sobresalir.*

Zaharkitu: *Obsoleto, viejo, pasado de moda.*

GAUTENA, AUTISMOA DUTENENGANA ETA HAIEN SENIDEENGANA HURBILTZEKO HELDULEKU IRAUNKORRA



GAUTENA AUTISMOA EDO AUTISTAREN ESPEKTROAREN NAHASMENDUA DUTEN GIPUZKOAKO PERTSONAK (TEA, GAZTELANIAZ) ETA HAIEN SENITARTEKOAK BATZEN DITUEN ELKARTEA DA, EGOITZA NAGUSIA DONOSTIAN DUENA. 1978TIK DAGO LANEAN ETA GAUR EGUN 600 BAT FAMILIARI EMATEN DIE ZERBITZUA. PERTSONA HORIEI ETA BERAIEI FAMILIEI BIZI-KALITATE ONENA EMATEKO ASMOZ, ZERBITZU ETA PROGRAMA ASKO DITUZTE INDARREAN, NORBANAKOAREN BEHARRIN ARABERA PERTSONALIZATUAK DAUDENAK.

70eko hamarkada bukaeran autismoaren minusbaliotasuna zuten seme-alaberen guraso batzuek elkarte bat eratzea erabaki zuten, oraindik autismoa ezezaguna zelako, sendaezina zelako eta babes handiago ematea ahalbidetuko zuelako. Beste elkarte batzuekin harremanetan jarri eta 1978an elkarte eratu zuten. Gaur egun Donostiako Aiete auzoan duten egoitzan hasi ziren zerbitzuak ematen; bertan dute egoitza nagusia, baina gaur egun Gipuzkoa osoan ari dira lanean. Dagoeneko haur eta gazteekin Gipuzkoa osoan lan egiten badute ere, helduei ere zerbitzu handiagoa eman nahi diete.

Lehentasuna izan zen seme-alabentzat diagnostiko onak bermatu ahal izatea; eta hasieratik Joaquin Fuentes mediku psikia-

tra donostiarrak lagundu zituen, orientazio teknikoaz gain, funtzionatzeko eredu eta zerbitzu motak ere zehaztu zituelako.

Hastapenean zehaztutako zerbitzuen diagnostikoa, tratamendua eta eskolatzea izan ziren. Gautenako zuzendari Ramon Barinagak gogora ekarri du hastapen horietan jende guztiak ez zuela ondo ulertu autismoa zuten pertsonak eskolatzeko asmoa. "Gautena elkartearen beti pentsatu dugu pertsona guztiak hezi behar direla eta, gainera, bestelako ikasleekin batera, modu integratzailean. Gerora, denborak arrazoia eman digu".

Behin aipatutako zerbitzuak bermatuta, zerbitzu gehiago gehitzen joan ziren: eguneko zerbitzua helduentzat, familiak arnasa hartzeko asteburuko programak,

LAN-TALDE HANDIA

Gautenan gaur egun 200 pertsonen lan egiten dute eta 600 familiei ematen diete zerbitzua. Ezkerretik bigarren, elkarteko zuzendari Ramon Marinaga.

“Gautena elkartearen beti pentsatu dugu pertsona guztiak hezi behar direla eta, gainera, bestelako ikasleekin batera, modu integratzailean. Gerora, denborak arrazoia eman digu”.

komunitateko etxebizitza programa, aisialdi programak eta beste batzuk. Esan bezala, elkartearen zerbitzuak biderkatzen joan da eta horietako asko Aieten duen egoitzan ematen ditu. Han daude familiei laguntzeko psikiatra, mediku, psikologo eta bestelako profesionalen kontsultak eta bulegoak, zerbitzu zentralak eta eguneko zentroa ere bai. Azken hori, eguneko zentroa, beste kokapen batera eraman nahiko lukete, Aieteko egoitzak oztopo arkitektonikoak dituelako.

Autismoak oraindik ez dauka sendabiderik, baina programa hauen bitartez lortu dute “edozein pertsonak dituen beharrak maila egokian asetzeko ezinbesteko laguntza” ematea; hau da, “pertsonaren normalizazioa eta bizi-kalitatea bermatzea”.

GIPUZKOA OSOAN ZERBITZUA EMATEN

Gautenako arduradunek argi dute autismoa duten pertsonak eta haien familiak direla elkartearen protagonistak eta eragileak. Horregatik, familiek gero eta parte-hartze handiagoa dute elkartearen erabakigune guztietan. Babeserako norbanako programan profesionalen koordinatuta daude familiak; zerbitzu bakoitzaren jarraipen batordeko parte dira, baita Eskola Batordean, Hezkuntza Etikoaren taldean, Zuzendaritzan eta Batzar Orokorrean ere.

“Ezagutzen ez bada, ezinezkoa da inork laguntzea eta babesa ematea; eta gizartean sentsibilizazio lana egiteak badu bere erantzuna”.

TEA ETA AUTISMOA GIZARTERATZEA

Minusbaliotasun motaren bat duten pertsonekin lan egiten duten elkarte orok helburu dute landutakoa gizartean zabaltzea, eta Gautenak ere hala egiten du. “Ezagutzen ez bada, ezinezkoa da inork laguntzea eta babesa ematea; eta gizartean sentsibilizazio lana egiteak badu bere erantzuna”, ondorioztatu du Barinagak.

Hala, urtero, urriko lehen hamabostaldian, sentsibilizazio kanpainak sortu eta zabaltzen dituzte. Kanpaina horietako lelo bat, Barinagaren ustetan TEAREN premia eta zentzua ezin hobeto definitzen duena, hauxe da: Autismoak bakartu egiten du, hurbildu zaitez zu zeu. “Askotan autismoak bakartu egiten du pertsona, komunikatzeko oztopoak jartzen dituelako. Horren aurrean, bada, eman zuk

berarengana hurbiltzeko pausoa”.

Sentsibilizazioarekin jarraituta, azken 25 urteotan udazkeneko hainbat hitzaldi antolatzen dituzte TEAREkin lotuta. Betiere, nazioarteko, estatuko eta Euskal Herriko hizlariekin. Hala, dagoeneko autismoari buruzko Europako eta AEBetako hainbat aditu pasa dira.

IMFAR NAZIOARTEKO JARDUNALDIA

Ezin ahaztu, maiatzaren lehen egunetan TEAK Donostia izango duela nazioarteko hiriburu. Joaquin Fuentes mediku psikiatra bitartekari dela, maiatzaren 2, 3 eta 4an autismoaren ikerkuntzari buruzko IMFAR nazioarteko jardunaldia Donostian egingo dute.

Eta Gautenak, hitzordu esanguratsu horren aurretik, maiatzaren lehen, familiei zein hezkuntza, arlo sanitario eta elkarteetako profesionali zuzendutako ikastaro dibulgatzailea antolatu du. Ez hori bakarrik, azken 12 hilabeteotan Donostia Autism lelopean dozenaka ekitaldi antolatu dituzte hirian minusbaliotasun honekin lotuta: kontzertuak Jazzaldian, filmak Zinemaldian, Eureka! Zientzia Museoa zein Euskadiko Orkestra Sinfonikoarekin ekitaldi bereziak...



Zertaz ari gara autismoaz hitz egiterakoan?

Autistaren espektroaren nahasmenduak (TEA) izenekoak hartzen ditu autismo hitzak. Buruko asalduren ondorioz, gizarteratzeko, komunikatzeko eta jokatzeko arazoak, gaitasunik eza, sortzen zaizkio minusbaliotasun hau duen pertsonari. TEA izen teknikoena bada ere, autismo moduan azaltzen da askotan. TEAREN barruan aldaera asko daude, bada minusbaliotasun intelektual arina edo sakona duenik; halako minusbaliotasunik ez, baina komunikatzeko arazoak dituztenak... Horregatik, pertsona bakoitzak tratamendu pertsonalizatu behar duela diote Gautenako arduradunek.

Gautena

Gipuzkoako Autismo Elkarte
Francisco Lopez Alen, 4
Donostia.
943 21 53 44 / 21 52 49
www.gautena.org

GAUTENA, ROMPER LA INCOMUNICACIÓN DEL AUTISMO

La Asociación Guipuzcoana de Autismo Gautena surgió en 1978 por iniciativa de unas familias que compartían problemas similares con el objetivo de ayudar a sus hijos e hijas, implantar los servicios necesarios y sensibilizar a la sociedad sobre su problemática concreta. El autismo, nombre que engloba a los denominados trastornos del espectro autista y cuyo nombre técnico es TEA, se debe a alteraciones cerebrales que producen diversas discapacidades que afectan a la socialización, la comunicación y el comportamiento.

Esta asociación tiene su sede principal en Donostia, pero da servicio semanalmente en todas las comarcas de la provincia. Actualmente, cuenta con 200 trabajadores que dan servicio a 600 familias del territorio. Gautena tiene en marcha diversos programas personalizados -servicio de atención de día, apoyo a familias, ocio y tiempo libre, educativo, tratamiento ambulatorio, vivienda,...- para garantizar la mejor calidad de vida de estas personas, cuya incapacidad es de momento incurable.



MUNDUKO ROLLS ROYCEEN ERAKUSKETA OSOENA, GALDAMESEKO AUTO KLASIKOEN MUSEOAN

MUNDUKO ROLLS ROYCE AUTOEN BILDUMA OSOENA PRIBATUA DA ETA BIZKAIKO GALDAMES HERRIAN DAGO IKUSGAI. ERABERRITUTAKO XIII. MENDEKO DORRETXE BATEN INGURUAN BOST PABILOITAN BANATUTA DE LA VIA FAMILIAK APARTEKO EGOERAN DAUDEN 75 IBILGAILU KLASIKO DITU, ETA HORIETATIK 43 ROLLS ROYCE AUTOAK DIRA. IGANDE ETA JAIEGUNETAN BISITATU DAITEKE 10:00ETATIK 15:00ETARA BITARTEAN.

Loizaga dorrearen inguruan bilduta dauden lau gurpileko altxorak De la Via enpresariak luza-roan atzerrian eta enkanteetan egindako bilaketaren emaitza dira, eta orain dela hamar bat urte museoko atea publikoari zabaldu zizkieten. Igande –edo jaiegunetan– goizero dago ikusgai edonorentzat. Horrez gain, 30 pertsonako taldea osatu eta aurretik hitzordua eginez gero, aste barruan taldeen bisitak ere hartzen dituzte.

De la Via enpresariak oso txikitatik ezagutu zituen Rolls Royceak, familian bi zituztelako. Enpresaria erabat zaletu zen automobil horiekin eta poliki-poliki piezak gehitzen joan zen, izugarrizko multzoa osatu arte. Gaur egun 75 auto dituzte dorrearen inguruko erakusketan, eta horietatik 43 Rolls Royceak dira. Izan ere, 1905 eta 1907 bitartean enpresa hori autoak fabrikatzen hasi zenetik 90eko hamarkadan enpresako autoei BMWren motorra jarri artean fabrikatutako modelo guzti-guztiak batu dituzte Galdameseko bilduman. “Kuwaiteko emirraren Phantom IVa erosi arte ez zegoen bilduma osatuta. Gaur egun fabrikatzen direnak ez dira guretzat interesgarriak; eta zaharragoa izanik ere pieza oso berezia behar du izan museorako erosteko”, azaldu zigun erakusketako gidari Jose Angelek. “Phantom IV modeloko 18 auto fabrikatu ziren eta horietako bat probak egiterakoan apurtu zen; gainontzeko guztiak, hemen daukaguna izan ezik, errege, xah eta estatuburuen jabetzak dira”, zehaztu zuen.

Kontua da Rolls Royce enpresak berak ere ez dituela modelo



guztiak gorde eta munduan daudenak sakabanatuta daudela, horietako asko gobernuburuen jabetzan. Hortaz, Bizkaikoa da Rolls Royceren auto guztiak aldi berean ikusteko aukera bakarra.

“Bizkaikoa da Rolls Royceren auto guztiak aldi berean ikusteko aukera bakarra”.

Esan beharra dago museoan dauden auto guztiak aparteko egoeran daudela eta, tarteka, ondo zaintzeko asmoz, guztiak martxan jartzen dituztela. Piezak aldatu beharra dutenean, ordea, Ingala-

SEKULAKO INGURUNEAN

Auto klasikoan museo XIII. mendeko Loizaga dorretxearen inguruan kokatuta dago, sekulako parajeen. 25 hektareetako lurzoruan lorategi ederrak eta auto klasiko bezetako pabiloiak daude.

terratik ekartzen dituzte; eta pieza hori jada merkatuan aurkitzerik ez badago, berri berri fabrikatu egiten dute.

Erakusketan dorrearen inguruan eraikitako bost pabiloitan banatuta dago eta atal bereziak, pieza bitxienak dituena, dorrean bertan kokatu dute. Azken hori bisitaldiaren bukaeran ikustea gomendatzen dute. Lehen pabiloian, auto zaharrenak gordetzen dituzte; bigarrenean, auto klasikoak –horien artean, Porsche, MG, Ferrari, Lamborghini eta Lancia lasterketarako autoak–; hirugarrenean, 30eko hamarkadako auto esanguratsuenak; laugarrenean, 1953tik gaur egunera arteko Rolls Royceen bilduma; bosgarrenean, Rolls Royce bakar eta eskusiboak; eta gaztelu-do-



DATUA

43

ibilgailu Rolls Royceak dira. 1905 eta 1998 artean fabrikatutako modelo guztiak batu dituzte bilduman.

rrerearen behealdean, Lehen Mundu Gerratearen aurretik egindako autoak, baliotsuenak.

AUDIOGIDAK HAINBAT HIZKUNTZATAN

Loizaga dorrean batutako auto bakoitzak istorio bitxia gordeta du bere baitan: fabrikatzeko prozedura, egindako kilometroak, lorpenak, jasotako onespren eta miresmena, izan dituen jabeak, horien bizipenak... Horietako batzuk ezagutzen dira eta beste batzuk, berriz, oraindik ez. Istorio horien lagin gisa, museoaren sarreran banatzen dituzten audiogiden bitartez, erakusketako 24 autori buruz gehiago jakiteko aukera dago: autoaren zehaztasun tekniko eta estetikoak, historia eta beste gauza asko. Audiogida horrek azalpenak euskaraz, gazteleraz, ingelesez eta frantsesez ematen ditu.

Museoa bera oraindik oso eza-guna ez bada ere, gero eta bisitari gehiago hartzen ditu, eta horietatik asko atzerritarrek izan ohi dira. Museoaren arduradun den Jose Angelen esanetan atzerritarrek interes handiarekin etortzen dira bertara eta aho zabalik gelditzen dira: "Kanpotarrek bertakoek baino gehiago estimatzen dituzte auto klasikoak", ondorioztatu zuen.

PASARTE ETA HISTORIA HANDIKO AUTOAK

Autoek bere baitan gordetzen dituzten pasarteei dagokienez, bada Rolls Royceez gain J.F. Kennedy erail zuten autoaren Cadillac modelo bera; Pio XII.ak jabetzan izan zuen Isotta Fraschini autoa -Rolls Royceri lehia egiten saiatu zena

baina huts egin zuena-; Hispano Suiza ibilgailuak; Paris-Le Mans irabazi zuen XK120 Jaguarra; Rolls Royce markaren aurka lehia egiten ahalegindu zen Bentley enpresako 30eko hamarkadako hainbat auto; Ingalaterrako Erreginari erositako Silver Wraith Rolls Royce bi -bata 1953koa eta bestea 1958koa-; 1898an fabrikatutako Allen Runabout autoa -erakusketako zaharrena-; Pirin Farinak diseinutako Rolls Royce eskusiboa eta beste hainbat.

“Nabarmentzekoa da 1936. urteko Merryweather Ingalaterrako suhiltzaileen kamioi bereizgarria. Munduan hiru daude bakarrik eta, Galdamesekoaz gain, beste biak Ingalaterrako Erreginarenak dira”.

MUNDUKO AUTORIK ONENA

Silver Ghost modelo da Rolls Royceek fabrikatu zuen lehen autoa eta, era berean, enpresa horri izen handiena eman diona. Berorri zuzendutako pabiloi osoa dute Galdamesen, horien artean 1019ko Ingalaterrako pieza bat; baita Phantomei zuzendutako beste bat ere. Horien artean, Jayparreko maharajari erositako 1923ko pieza bat, AEBetan egindako 1922ko Springfield Silver Ghost, 1921eko Silver Ghost Limon Line; aurkeztutako txapelketa guztietan dotoretasun sariduna izan zen 1912ko Silver Ghost pieza, Australiatik ekarritakoa eta motor guztia bistan duena; 1926ko Phantom I eta bestelako altxor ugari.

Aipatutakoez gain, museoan bestelako kapritxoak ere badituzte: horien artean, nabarmentzekoa da 1936. urteko Merryweather Ingalaterrako suhiltzaileen kamioi bereizgarria. Munduan hiru daude bakarrik eta, Galdamesekoaz gain, beste biak Ingalaterrako Erreginarenak dira.

Erakusketaren jabeek diote munduan ez dagoela Rolls Royce autoen halako museorik. Hala entzunda bilbainada dirudi, baina han dagoena ikusita hankaz gora jausi daitezke autozale asko eta asko.

Informazio gehiago: www.torreloizaga.com



AUTO DOTOREENAK

Museoan aurki daitezkeen autoak munduko dotoreenak dira. Mende oso batean fabrikatutako Rolls Royce modelo guztiez gain, bestelako auto klasiko ugari daude, guztiak egoera ezin hobean.

BISITARIAK HARTZEN IA DERRIGORTUTA



Bilduma honen jabeak ez zuen erakusketarik jartzea aurreikusten eta badira urte dezente autoak film edo ekitaldi berezietarako alokatzeari uko egin ziola. Baina orain dela 15 bat urte, Santiago egunean Galdamesen egiten den jaiaren harira, parrokoak jabeari eskatu zion auzotar eta bisitarien auto bilduma erakusteko. Urte hartan 200 pertsona joan ziren bilduma ikustera, hurrengo Santiago egunean 2.000 pertsona batu ziren, eta hirugarrenean Galdames inguruko errepide guztiak kolapsatu ziren. Handik aurrera bildumaren berri ahoz aho zabaldu zen eta interesatuen dei ugari jasotzen hasi ziren; hainbeste, non nazkatu egin ziren. Horren ondorioz, erabaki zuten igandero eta jaiegunetan museoa 10:00etatik 15:00etara zabaltea. Hala egiten jarraitzen dute. Horrez gain, 30 pertsonako taldeak osatuz gero, aukera dago aurrez deituta aste barruan ere bisitak egiteko. Helduek 7 euro ordaindu behar dute; erretiratuek zein 12 eta 18 urte bitarteko gaztetxoek 4 euro, eta txikienek doan dute sarrera. Interesatuen eskura audiogidak jartzen dituzte eta edonork argazkiak egin ditzake.



LA MÁS COMPLETA COLECCIÓN DE ROLLS ROYCE DEL MUNDO ESTÁ EN GALDAMES

La colección de Rolls Royce más completa del mundo es privada y está en la Torre Loizaga en Galdames (Bizkaia). Alrededor de la reconstruida casa-torre Loizaga que data del siglo XIII, la familia De La Vía ha conseguido recopilar 75 vehículos antiguos y clásicos en estado impecable -43 de ellos son Rolls Royce-. La colección, abrumadora, puede ser visitada todos los domingos y festivos entre las 10:00 y las 15:00 horas. Además, existe la posibilidad de visitar el museo otros días, siempre y cuando se reúna un grupo de 30 personas y se reserve cita previa.

Una vez la familia consiguió adquirir, tras sucesivos intentos, un Rolls Royce Phantom IV que era propiedad del emir de Kuwait, completaron la colección que incluye todos los modelos de Rolls Royce desde 1905 –su inicio- hasta la década de los 90, cuando BMW se hizo con la empresa y empezó a incorporar otro tipo de motores en los automóviles.

La visita mediante audioguía, desvela incontables historias comprendidas entre las cuatro ruedas de estos formidables vehículos de lujo.

INNOVALAN

GAIXOTASUN MENTALA DUTENEN LAN-AUKERA



ZAMUDIOKO OSPITALEKO ETXE GORRIRA SARTU GARA, ERREHABILITAZIOKO ERAIKINERA, HAIN ZUZEN. BERTAN DUGU MIKEL ZARATE, **GIZARTE-LANGILEA**, INNOVALAN EKIMENA ZERTAN DATZAN AZALTZEKO PREST. PAZIENTEEN ARLO SOZIALAZ ARDURATZEN DA MIKEL, PAZIENTEEN BIZI-KALITATEA HOBETZEA DA EGITEN DITUZTEN ERREHABILITAZIO EDO IRTEERA-PROIEKTUEN HELBURUA. HELBURU HORI LORTU NAHIAN SORTU ZEN INNOVALAN.

Zer da Innovalan?

Innovalan erakunde eta elkarte sendoen arteko ekimena da, gaixotasun mentala duten pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko eta lan-munduan sartzea sustatzeko.

Noiz sortu zen ekimen hau? Non? Zer-gatik?

2008an hasi zen. Zamudioko Ospitaleko Errehabilitazioko Unitatean konturatu ginen gure pazienteek bizi-proiektu autonomoa izateko funtsezkoa dutela lana; lanak, euskarri ekonomikoa emateaz gain, pazienteari sozializatzeko aukera ematen diola, bere eguneroko bizi-modua antolatzeak aukera (ordutegi bat altxatzeko, jateko...), azken finean lanak pertsonari duintasuna ematen diola.

Nola hasi zen Innovalan?

Deustuko Unibertsitate Gizarte Lana ikasten ari direnen praktiketan irakasle jarduten dut. Ikasle baten urte amaierako lan-proiektua bideratzen ari nintzela, zerbait erreala eskaini behar niola pentsatu nuen eta orduan hasi ginen gero Innovalan izango zenarekin buel-

taka. Bizkaiko hainbat elkarteri deitu genien, gaixo mentalekin lan egiten dutenei (AVIFES, Argia, Eragintza, Hogar Izarra), **bazterketaren** aurka lan egiten dutenei (EMAUS, Bizitegi), ezgaitasuna duten pertsonentzako lanpostuak sortzen dituztenei (Lantegi Batuak). Horretaz aparte, Parke Teknologikoa eta Innobasque (Berrikuntzaren Euskal Agentzia) ere gehitu zitzaizkigun, eta 2008ko udazkenean foro batean bildu ginen elkarri zer eskaini eta zer eskatu aztertzeke.

Zein da Innovalanen filosofia?

Hiru zutabe ditu:

- Lanpostuak sortu Parke Teknologikoko beharrianak betetzeko.
- Sentsibilizazioa jorratu: gaixotasun mentalaren estigma eta **aurreiritzien** aurka lan egin.
- Innovalanen elkartean ondo egiten diren lanak eskaini.

Elkarte askoren ekimena da Innovalan. Ez da ezadostasunik izan?

Bai, gorabeherak izan dira eta, horren ondorioz -krisi ekonomikoak ere la-

ORTUAN

lan egitea eta bizi-proiektuautonomia izatea funtsezkoa da gaixoaren bizi-kalitatea hobetzeko. Ortu lanetan ari diren dira horietako zenbait.

gundu du horretan-, zazpi elkarte baino ez gaude proiektuan orain: EMAUS, Bizitegi, Hogar Izarra, Argia, Parke Teknologikoa, Innobasque eta geu, BOMS (Bizkaiko Osasun Mentaleko Sarea). Baina **gogotsu** gaude eta aurrera goaz.

Zein fasetan dago ekimena?

Orain egoera ez da nahi genukeen bezain ona. Halere, ez gaude geldirik. Orain sentsibilitatea ari gara jorratzen eta gure arteko harremanak sendotzen. Fase horren fruitua Bioeskola da. Ez zen Innovalanen aurreikusten genuena, baina oso proiektu interesgarria da. Parke Teknologikoa 30.000 m² eskaini ditu **ortu ekologikoa** egiteko BBKren laguntzaz. Asmoa da bertan lanean ari diren 10.000 bat lagunaren artean bazkideak lortzea eta ortu horretan ekoiztutakoa kutxetan bazkideei helaraztea.

Ortu ekologikoan nork egiten du lan?

Joan den abenduan eta urtarrilean Zamudioko Ospitaleko Eguneko Zentro eta Errehabilitazioko Unitateko hamar pertsona aritu dira prestakuntza jasotzen. Laster aukeraketa egin beharko da, tamalez, ez baitago denentzat lanik.

Azkenean enpresa eraikiko duzue?

Ez dakit. Innovalanen aztertzen ari gara ekoizpen prozesu osoari ekitea, aztertzen ari gara bideragarria izan litekeen hazi ekologikoez geu arduratzea eta amaieran kontserbak ere egitea. Oraingoz hiru **berotegi** prestatu dira eta oiloak ere sartu nahi dituzte. Hori guztia, jakina, gaixotasun mentala duen pertsonarentzat hain zaila den lanpostua sortzeko helburuarekin.

Uzta ona izan dezazuela, Mikel!

Garbiñe Apraiz
BOMSeko hizkuntza normalizazioko teknikaria

Aurreiritzi: *Prejuicio.*
Bazterketa: *Exclusión.*
Berotegi: *Invernadero.*
Gizarte-langile: *Trabajador social.*
Gogotsu: *Con ganas, con entusiasmo.*
Ortu ekologiko: *Huerto ecológico.*

“MUTIKOTAN PILOTAN EGITEN GENUEN ETA SEKULA EZ GENUEN IRUDIKATU PROFESIONALAK IZANGO GINENIK”

IBAI ZABALA

IBAI ZABALA PILOTARIAK EZ ZUEN FUTBOLA ETA PILOTA ARTEAN AUKERATZEKO BURUHAUSTERIK IZAN, BERE HERRIAN PILOTA BIZI ZUTELAKO. ATZELARI JOKOAN BIDE LUZEA EGIN DU ETA ASPALDIAN LEHEN MAILAN DABIL, -AIMAR OLAIZOLA BIKOTE DUELA- BERE ONENA EMATEN. ESKUINEKO ESKUAN HIRU EBAKUNTZA EGIN BADIZKIOTE ERE, LAN HANDIA ATZETIK EGINDA BAIKORTASUNEZ EGIN DU AUERRERA.



Zer da pilotak eman dizun gauzarik onena eta txarreana?

Pilotak gauza asko eman dizkit eta guztiak positiboak. Egia da une txarrak pasatu ditudala eskuan hiru ebakuntza izan ditudalako, azkena nahiko larria; eta inoiz hedabideetan kritika txarrak ere izan ditut. Baina hori normala da, eta kirolariak hori eramaten jakin behar du.

Pablito Berasaluzek zu jokoan egotearen 'errua' dauka? Zer erakutsi dizu?

Pablo oso lagun handia dut, anaia bat da. Berarekin harremana izan dut, batez ere profesionalera salto egin nuenetik; eta orain nagoen lekuan egotearen erruaren zati handi bat berea da: asko lagun du dit eta aholku asko eman dizkit. Lan eta lan egin behar da, baina oso ondo zabiltzanean ez utzi, eta txar zabiltzanean ez amore eman.

Inoiz esan duzu Aimar Olaizola jokalarari onenatarikoa dela. Berarekin jokatu aurretik ere?

Postura eta modalitate guztiak menderatzen ditu, eta luxua da berarekin jokatzeko. Gainera, frontoietan kanpo ere oso pertsona eramangarria da.

“Pablo Berasaluzek du orain nagoen lekuan egotearen ‘erruaren’ zati handi bat”.

Eta bikote duzunetik asko aldatu da zure jokoa?

Pixka bat. Txapelketa amaitu ostean eta beste batzuekin jokatzen hasten naizenean, agian beti jokatu dudan estilora bueltatuko naiz. Bikotera egokitu behar zara. Ni kantxan asko ibili izan naiz, baina Aimarrek nahiago du ni nire lekuan egotea. Dagoeneko elkar ondo ezagutzen dugu eta hori oinarritzakoa da.

Luze da promesa zarela entzuten duzunetik lehen mailan jokatzera pasatu arteko bidea?

Bai, luze egiten da, baina profesionalismoa horrelakoa da. Debatzen duzu, guztiak maila handia du, asko prestatu behar zara, partida guztietan jokatu behar... Eta atzelaria izanez gehiago. Atzelaria asko gogortu behar da, partida asko

“Luze da promesa zarela entzuten duzunetik lehen mailan jokatzera pasatu arteko bidea, are gehiago atzelariontzat”.

jokatu, gauza asko ikusi... Pazientziaz hartu behar da, presarik gabe.

Atzelariaren papera askotan ezkutuan gelditzen da, aurrelariarenaz alderatuta, baina zuen lana ezinbestekoa da. Zu musikazalea izanda, musika talde bateko baxuarekin konparatu zaitzakegu?

Normalean atzelariok ez gara asko nabarmentzen, Zabaleta moduko salbuespenak izan ezik. Aurrelariak amaitzen du tantoa, eta ikusgarritasuna horrek ematen du. Baina atzelariak jakin behar du bere lana egiten eta bere lekuan egoten. Bai, musikazalea naiz, talde batean abesten dut, eta egia da baxuarekin konparatzea dagoela; baxurik ez badago, guztia dago **kolokan**. Beste instrumentu batzuk dira ikusgarritasuna hartzen dutenak.

BERRIZKO ESKOLA

Zabala pilota jokoa hasi zenean, umetan, herriko frontoia lepo beteta egoten zen. Gaur egun penatuta dago, frontoia hutsik eta erreleborik ikusten ez duelako.



Hitz egin musika taldeaz...

18 urterekin sortu genuen koa-drilakook, eta urtean hainbat kontzertu egiten ditugu; bertsoak eta hiru kanta propio dira gure kantutegia. Basque Street Boys da taldearen izena eta neu abeslaria naiz.

Nola gogoratzen dituzu Belokiren orde z 1. mailan jokatuak lehen partidak? Zer ikasi zenuen?

Pozik eta ilusio handiz, baina urduritasun handiarekin ere bai. Eta beti ikasten. Eskailera bakoitzak gauza asko ematen dizkizu; jakin behar duzu hori ondo xurgatzen eta zure egiten.

Zer moduz dago pilotaren harrobia Bizkaian?

Nahiko gaizki. Orain dela 15 urtekoarekin ez dago konparatzerik ez mailan, ez eta kopuruan ere. Adibidez, lehen Berrizen ia ez zegoen lekurik pilotan jokatzeko eta orain hutsik dago frontoia. Esaten dute kirol askotan gertatzen ari dela hori, baina nire ustez umeak profesionalizatu nahi dituzten gurasoek dute horren erruaren zati bat. Guk pilotan egiten genuen eta sekula ez genuen irudikatu profesionalak izango ginetik.

Asko zaindu beharra daukazu?

Zaintzen naiz, baina tarteka afariren bat ere egiten dut. Guztia bere neurrian egin daiteke. Partidaren bezperatan saiatzen naiz hidratoak jaten. Egunero entrenatzen dut: Iurretan entrenamendu fisikoa eta pilotalekukoa, berriz, enpresak agintzen digun lekuan. Eta orain hartu dut ohitura partida eguna baino bi egun lehenago ez entrenatzeko, bezperan, ordea, bai.

Zer erakutsi zizun Gotzon Garatek? Bukatu dituzu dagoeneko Euskal Filologia ikasketak?

Deustun Euskal Filologian irakasle izan nuen. Oso gizon positiboa zen eta indar berezia zeukan. Asko bizi eta asko ikasitakoa izan arren, neurritz hitz egiten zekien. Miresgarria zen. Filologia bukatzeko ikasgai batzuk falta zaizkit eta aurten bukatu nahi ditut.

Zer dauka pilotak heldu eta gazteak erakartzeko?

Duela 30 urte, gizonak eta, oro har, jende nagusiak jarraitzen zuen pilota. Orain, berriz, jende gazte asko sartu da; adibidez, ikustekoak dira larunbatetan Iruñeko frontoian jokatzeko diren partidak,

EUSKAL FILOLOGIA

Pilotan ibilbide profesionala garatzeaz gain, Euskal Filologia ikasten ere dihardu Zabalak; ikasketak aurten bukatzeko asmoa du.

jende gaztea egoten da... Jende gaztea zaletu da, eta emakume asko ere bai. Pilotariak ere gehiago zaintzen dira orain. Telebistak ikusgarritasun handiagoa eman dio jokoari. Nik uste dut pilotak jakin izan duela bizi dugun garairra eta jendeak eskatzen duenera egokitzen. Eta oraindik aldaketa handiagoak ikusiko ditugu!



LESIOEI AURRE

Eskuan hiru ebakuntza egin izan diote berriz-tarrari -horietako bat larria-, baina pazientziarekin eta lana gogor eginez, aurrera egiten jakin du.



Amore eman: *Rendirse, tirar la toalla.*

Atzelari: *Zaguero (en el juego de la pelota), defensa (en el fútbol).*

Buruhauste: *Quebradero de cabeza, preocupación.*

Eramangarri: *Llevadero, soportable.*

Harrobi: *Cantera.*

Kolokan: *Inseguro, inestable, dudoso.*

BAGA BIGA BLOG, EUSKARAK ETA OSASUNGINTZAK BATZEN DITUENEN TOPALEKUA



IAZ BILBOKO BI MEDIKUK BAGA BIGA IZENENKO BLOGA MARTXAN JARRI ZUTEN EUSKARA OSASUNGINTZARA GEHIAGO HURBILTZEKO ETA PROFESIONAL EUSKALDUNEI EUSKARAZ ARITZEKO ERREMINTAK ETA BIDE EMATEKO. HASIERATIK, FISIOTERAPEUTEK HORREN ALDEKO APOSTUA EGIN ZUTEN ETA EPE LABURREAN, DIZIPLINA ASKOTAKO PROFESIONALAK PARTE HARTZEN HASI DIRA, GERO ETA SONA HANDIAGOA HARTU DU BLOGEAN. EGUNOTAN KASU KLINIKOEN BAGA BIGA BLOG LEHIAKETA ANTOLATU DUTE.

Mikel Baza eta Ainara Salazar familiako mediku bilbotarrak osasun mundua euskaldundu nahi dute, eta belaunaldi gazteak erakartzeko teknologia berriak erabiltzea erabaki zuten. Hala, Baga Biga blog sortu zuten. Bazak eta Salazarrek, biek, Osasungoa Euskalduntzeko Erakundearekin harreman zuzena dute, baina ekimen hau beraien kabuz egin dute euren borondatez.

EUSKARAREN ETA OSASUNGINTZAREN TOPALEKU

Osasungintzaren alorrean tradizionalki gaztelaniaz asko egiten dela azaldu dute eta horrekin apurtzeko ahalegina egiten dabiltzala. Horrez gain, osasungintzako alorrak oso itxiak omen dira, eta

horien mugak ere apurtu nahi dituzte, bloga eta suspertzen diharduten ekimenak osasunaren arlo ezberdinetara zabalduz. Hala, Baga Biga blogak euskara eta osasungintza batzen dituen pertsonen **topaleku** izan nahi du.

Horren bidean, lehen pausoak izan ziren idazteko moduko gai posibleak batzea eta osasungintzaren inguruan dauden euskarazko baliabideak biltzen hastea; eta horri esker, profesionaleri erremintak eskaintzeko. “Ez genuen nahi blogaren izena medikuntzarekin zuzenean lotuta egotea; horregatik hitz jokoa ere ematen duen adiera irekia aukeratu genuen”, kontatu digu Bazak. Bitxikeria moduan, Baga Biga izeneko beste blog bat ere bada sarean,

OSASUN ALORRA EUSKALDUNDU

Baga Biga blogaren sortzaile Mikel Baza eta Ainara Salazar familiako mediku bilbotarren helburua da osasun alorra euskalduntzeko ahalegina egitea; horregatik sortu zuten beraien kabuz bloga.

“Ez genuen nahi blogaren izena medikuntzarekin zuzenean lotuta egotea; horregatik hitz jokoa ere ematen duen adiera irekia aukeratu genuen”.

baina hura bloga da eta bilbotar hauena blog. “Beste blogaren arduradunarekin hitz egin genuen, baina ez zigun eragozpenik jarri”, azaldu digute.

Bestalde, bloga sortzearekin bat, twitter eta facebook kontuak ere zabaldu zituzten eta 2.0. kontzeptua garatzen saiatzen dira. “Oso garrantzitsua iruditzen zaigu interesa duen edozeinek irakurri eta erabiltzeko moduko gaiak lantzea; eta nahi duenak idatzita-koari erantzun, galderak egin edo **ekarpenak** egitea”, kontatu digu Salazarrek.

Helburu xume bezain erraldoiarekin hasi zen ekimenak dagoeneko 7.000 bisitatik gora izan ditu, eta gero eta ezagunagoa da gainera. “Ez nuen inola ere pentsatzen halako harrera izango zuenik. Badirudi egia dela euskarazko erremintan gabezia dagoela eta jendeak horren premia duela”, laburbildu du Salazarrek.

Hasieran blogeko albisteak Bazak eta Salazarrek bakarrik idazten bazituzten ere, fisioterapeuta

talde bat parte hartzen hasi eta poliki-poliki osasungintzako profesional gehiago parte hartzen hasi dira. Horren harira, azpimarratu dute ez dagoela bertan parte hartzeko baldintzarik: “Osasungintzari buruz euskaraz idatzi nahi duenak atea zabalik ditu, profesionala izan zein ikaslea izan. Eta testuak zuzenketa gramatikala behar badu, gu arduratu gara horretaz”. Horrela, euskaraz idazteko ohitura bultzatu eta kolaboratzaile talde finkoagoa osatu nahi dute. Orain arte, batez ere, medikuek eta fisioterapeutek hartu dute parte.

SAREAN ETA TALDEAN LAN EGITEA

Blogean aurki daitekeen ataletako bat pazientearena da. Bertan pazienteentzako gomendioak jasota daude. Bazak Kataluniako familiako medikuen elkargoaren webgunean pazienteentzako gomendioak hainbat hizkuntzatarara itzulita aurkitu zituen. Bazak beraiengana jo eta euskarara itzultzea proposatu zien, eta haiek onartu egin zuten. Gerora, Osasungoa Euskalduntzeko Erakundeak bere egin du proiektua eta Baga Biga blogak koordinatu du. “Gomendio fitxa horiek modu erraz

eta laburrean patologia bakoitza zertan datzan azaldu eta horren inguruko aholkuak ematen dituzte”, kontatu digu Salazarrek. Guztira 70 bat fitxa zirenez, beste profesional batzuei laguntza eskatu zieten Bertsio Saio Klinikoen testuinguruan, eta 20 bat lagunaren artean egin zituzten itzulpen guztiak. Orain Iberba enpresa itzulpenak **fitzen** ari da eta Baga Biga blogeko asmoa gomendio guztiak Osakidetza-ri eskaintzea. “Horrelako ekimenek erakutsi dute sarean eta taldean lan eginda posible dela emaitza onak lortzea”.

“Horrelako ekimenek erakutsi dute sarean eta taldean lan eginda posible dela emaitza onak lortzea”.

TARTEKA, GAI ZEHATZEI BURUZKO EZTABAIDAK

Orain arte, aldizkako albisteez gain, tarteka gai zehatzak proposatu eta diziplina desberdinetako profesionali blogean artikulua idazteko eskatzen diete. Urtarrilean sorbal-

dako tendinopatia izan zen auke-ratutako gaia, eta laster minari buruzko artikulua bidaltzeko eskaera egingo dute. Nahi duten guztiak gai horri buruz idatzi ahal izango dute, eztabaida eta gaiari heltzeko eduki-aberastasuna lortzeko asmotan.

KASU KLINIKOEN LEHIAKETA

Egunotan, baina, blogaren **bultzatzaileak** asmatu duten kasu kliniko-ko lehiaketarekin buru-belarri dabilta. “Konturatu ginen kasu kliniko-ko buruzko artikulua dirrela bisita eta erantzun gehien dituztenak. Horregatik, helburua irakurleak, idazleak eta jendea blogera hurbiltzea denez, lehiaketa antolatzea erabaki genuen”, argitu du Salazarrek.


Azkue Fundazioaren laguntzaz, lau sari banatu dituzte eta bosgarrena Osasungoa Euskalduntzeko Erakundeak eman du. Hala, Medikuntzako kasu kliniko onenak 100 euro jasoko ditu; eta beste horrenbeste Fisioterapeutakoak, Erizaintzakoak eta gaitzaren diziplinen artekoak ere. OEEK, berriz, aipatutako kasu kliniko-ko egindako komentarioak edo emandako erantzunak sarituko ditu.

Kasu klinikoak bidaltzeko epea zabalik dago dagoeneko, eta maiatzaren 31n bukatuko da. Lehenik eta behin, kasu klinikoaren sarre-**ra argitara emango** dute; jendeak aste bete izango du berorri erantzun edo irtenbidea emateko; eta jarraian kasu klinikoaren soluzioa emango dute ezagutzera.

Lehiaketa honen berri emateko osasungintzako diziplina askotako elkargoekin harremanetan jarri dira. Hala, Mikel Bazak uste du lehiaketa honen bitartez profesional asko blogera hurbiltzea lortuko dutela.

DIZIPLINA ANITZKOA

Bloga aipatutako bi mediku bilbotarrek abiarazi bazuten ere, osasungintzarekin lotutako edozein profesionali irekita dago, eta gero eta gehiago dira parte hartzen dutenak.



Argitara eman: *Publicar.*
Bultzatzaile: *Promotor/a, impulsor.*
Ekarpen: *Aportación, contribución.*
Findu: *Mejorar, arreglar, pulir, adornar.*
Sona: *Fama, renombre.*
Topaleku: *Lugar de encuentro.*

MEDIKUEN BIOGRAFIAK

JUAN GONDRA REZOLA



Arrospideren argazkia eta Bollegi baserria, gaur egun.



Jon María Erramon Andoni Arrospide Basabe


Jon María Erramon Andoni Arrospide Basabe 1900eko azaroaren hamaikan Muxikan bataiatu zuten, aita Busturiakoa eta bere lerrokoak Busturian bertan izan zituen, Eskibel eta Bollegui baserrietan, hain zuzen ere. Herriko adinekoen esanetan, Busturiako gaixo pobreak dohainik zaintzen zituen. Beraien iritziz, bere aitak ere mediku lan egiten zuen Muruetan eta XIX. mendeko Bulukua mediku famatuaren senidea izan zen.

Joan den mendekoaren hirugarren hamarkadako medikuntzak aurrerapena handia lortu zuen Bilbon; batez ere, Basurtuko Ospitalean. Han, Areiltzaren zuzendaritzak bide berri batzuk urratu zituen eta, haien artean, "Tisiologia" zeritzon espezialitatearena, gaurko arnas aparatua.

Eta Basurtun Tisiologia zabaltzeko oso mediku gazte eta trebea heldu zitzaigun, Arrospide doktorea, hain zuzen. Zerbitzuko burua izateko oposaketak 1933.eko urtean gainditu zituen, baina oso denbora laburra eman zuen zeren eta 1937. urtean, Frankoren armada Bilbora sartu ondoren, baztertu eta geratu zen abertzaleen eta errepublikanoen aurkako garbiketa gogorra zela eta. Baina lau urte horietan **lan eskerga** egin zuen Ospitalean bertan: zerbitzu berria antolatzea eta gaixoak osatzea; irakaskuntza arloan, mediku espezialista berriak sortzea, udako ikastaroak, ikasleentzako praktikak... Ospitaletik kanpo, gaixoak beraien etxean osatzeko kontsultategi berria antolatu zuen; eta guda hasi ondoren, Medikuntza Fakultatean irakasle ere egon zen.

Frankismoaren errepresioa pasa ondoren, ez zuen aukerarik ospitalean edo fakultate batean lan egiteko, bakarrik bere kontsultan jarrai zezakeen; baina han ere ikerketa arloa jorratzen ahalegindu zen: horiek horrela, 1953. urtean, Bilboko arnas aparatua espezialistatik famatuena izanik, Hoffmann-La Roche laborategiak tuberkulosiaren aurkako botika berri bat Bilbon sailatzeko enkargua eman zion.

Arrospide doktorea 1977. urtean hil zen Bilbon.



Barriola zahartzaroan (Argazkia Euskomedia)



Artikulu eta argazkiak José Mª Urkia Etxaberen 'Barriola Íntimo' liburutik hartuta daude.



Donostiako Marianistas ikastetxea, Aldapeta kalean, XX. mendeko lehenengo erdian. (Marianisten artxiboa).

Barriola Doktorea

Ignacio Mª Barriola Donostian jaio zen 1906. urtean; aita, Avelino, zapata denda baten jabea izan zen eta Donostiako Marianistetan batxilergoa ikasi zuen; gero, Salamancara heldu zen Medikuntzarako sarrera azterketa gainditzeko. Medikuntzako ikasketak, berriz, Madrilén egin zituen 1928. urtera arte. Harrezkero, doktore tesia egitera Vienara joan zen. Horrez gain, beste hainbat hiritan egin zituen egonaldiak: Vichyn; Parisen, Redoux, Pachen eta Roux doktoreekin; Heilbergen eta Kolonien.

Zirujau eta mediku trebea itzuli zen Donostiara, eta Las Mercedes klinikan eta San Antonio Abad Ospitalean zirujau egon zen.

Garai hartan, 30eko hamarkadan, euskaraz jardun zuen *El Día* eta *Argia* egunkarietan eta Jose Ariztimuño Aitzolekin "Euskaltzaleak" kultura lanaren inguruan ibili zen.


Guda zibila oso kaltegarria izan zen berarentzat eta bere senideentzat. Guda eta gero, 1941. urtean espetxeratu zuten eta heriotza-zigorra ezarri zioten. Hala ere, 1942an **heriotza-zigorra** kendu eta Madrilgo espetxean 12 urte betetzera kondenatu zuten Azkenean, 1943. urtearen amaieran, askatu egin zuten eta Donostiara itzuli zen.

Gero, 50-60 hamarkadetan Euskal Herriaren Adiskideen Elkarteko eta Euskaltzaindiako kide izan zen. 1957-1959 urte bitartean Akademia Mediko Kirurgikoan presidente lanak egin zituen. 1963an Gipuzkoako Goi Ikasketen Aldeko Patronatua sortu zuen, gerora Euskal Herriko Unibertsitatearen hazia izango zena.

1987az geroztik, Gipuzkoako Medikuen Elkargoko presidentea izan zen 15 urtetan, eta, horrez gain, Eusko Ikaskuntzako Medikuntza arloko presidentea aukeratu zuten.

Mendearan amaieran Medikuntzaren Historiaren Euskal Herriko Elkarteko ohorezko presidentea izendatu zuten. Azkenik, 1998ko azaroaren 2an hil zen Donostian, 92 urte zituela.

EPIDEMIAK EUSKAL HERRIAN IZURRITE BELTZA



Izurridunentzako ospitaleak.



Izurridun fraideak.



Izurri beltzak Europan izandako hedapena. Tonu gorri desberdinek barreiatutako zonaldeak irudikatzen dituzte.



Medikua babesteko soinekoa. Marseillako izurrite handiko mediku bat (XVII. mendea).

1348. URTEAN GAIXOTASUN EZEZAGUN BAT HASI ZEN HEDATZEN EUROPLAN: IZURRITEA. ETA HIRU URTEREN BURUAN IZURRITE HORREK POPULAZIOAREN HERENETIK ERDIRA HILTZEA EKARRI ZUEN. BADIRUDI GENOVAKO ONTZI BATZUEK KAFFA HIRITIK (ITSAS BELTZAREN ERTZEAN) EKARRI ZUTELA IZURRIA ITALIARAINO, ETA HANDIK, PROVENTZATIK, DONE JAKUE BIDETIK ETA IPARRALDETIK, GIPUZKOARAINO, BIZKAIRAINO ETA NAFARROAKO ERRESUMARAINO.

LAPURDIN

Baionako Katedralaren 1350eko agiri batean Izurri Beltzaren ondorioak aipatzen dira:

- **Hilkortasun handia**
- Biztanleriaren ihesa; batez ere dirudunen artean.
- Azokak ixtea eta elikagaien eskasia.
- Zergak ordaintzeko zailtasuna.
- Agintarien isiltasuna.

NAFARROAN

Oso albiste zuzen gutxi daukagu, horien artean agiri batean bildutakoa: "Grant mortaldat que sobreueno por todo el mundo quasi en el comiengo de dicho ayno XL^o VIII^o, la quoyal es notoria et el pueblo es muy estruyto e povrecydo". Baina zeharkako datuak argiak dira, zeren eta 1348-1350 urte bitartean Nafarroako biztanleriak izugarritzko beherakada jasan zuen. Monteano historialariaren ustez, biztanleen %50 hil

zen urte horietan, herrien arteko aldea nabarmena bazen ere (%80 Anuen, eta Sakanan, berriz, %20).

1348-1350 urte bitartean Nafarroako biztanleriak izugarritzko beherakada jasan zuen. Monteano historialariaren ustez, biztanleen %50 hil zen urte horietan.

ZUBEROAN, ARABAN, GIPUZKOAN ETA BIZKAIAN

Nafarroari buruz baino datu gutxiago daukagu. Aipamen zuzen eta eskasen artean, Bermeo **hiribilduari** dagokion egoerari buruzko idazki hau dugu: "Vinieron a ella muchos trabajos de pestilencia, fuegos y robos por la mar... ..de que habían fallecido los mejores y más principales de la villa y los que quedaban no eran la tercia parte de los que solían vivir y morar en ella". Eta biztanleen beherakada frogatzeko "despoblados" eta "mortuorios" (auzoak edo herrixkak) aipatzen dituzten zeharkako erreferentzia batzuk.

Eskerga: *Inmensola, enorme.*

Izurrite Beltz: *Mortalidad.*

Hilkortasun: *Peste negra.*

Hiribildu: *Villa.*

Heriotza-zigor: *Pena de muerte.*

Zirujau: *Cirujano.*

OSASUN KUDEAKETAREN GAINEKO KONGRESUA

OSPITALEEN ETA OSASUN KUDEAKETAREN KONGRESU NAZIONALA EGIN ZUTEN EUSKALDUNA JAUREGIAN, OTSAILEAN. IDEIA ETA ESPERIENTZIEK GAINEAN EZTABAIDATU ETA HAUSNARTZEA ZEN KONGRESUAREN ASMO NAGUSIA. OSAKIDETZAKO ZUZENDARI OROKORRAK ERE PARTE HARTU ZUEN; IKERKUNTZAN, BERRIKUNTZAN ETA HAZKUNDEAN EGIN BEHAR DELA APUSTUA NABARMENDU ZUEN.



Otsailaren amaieran Ospitaleen eta Osasun Kudeaketaren Kongresu Nazionala egin zuten Bilbon. Bi urtean behin egiten duten batzarra da, eta aurtengo 18. edizioa izan da. *Balio iraunkorra sortzen* lemarekin egin zuten batzarra. Osasun zuzendarien Espainiako Elkarteak -SEDISA- eta Erizaintzako Zuzendarien Elkarte Nazionalak -ANDE- antolatu zuten batzarra. Bi erakundeek helburua instituzioen eta osasun arloko enpresen zuzendarien lana hobetu eta duin bihurtzea izan zen, besteak beste. Ospitaleen eta Osasun Kudeaketaren Kongresua jakintza eta esperientzia trukatzeko helburua duen foro zientifiko bakarrenetakoa da. Espainiako Osasun erakundeek gestioaren gainean jarduten dute foroan, baina inguruko errealitatea ere kontuan izaten dute.

Osasun sistemaren jasagarritasuna bilatzeko egin zuten batzarra, eta horretarako bi ardatz izan zituzten: berrikuntza eta ikerkuntza, eta balioaren ekarpena.

Antolatzaileen esanetan batzarrak izan zuen erantzunean egon zen arrakastaren gakoa. Autonomia erkidegoko zuzendari eta kudeatzaileen aldetik, eta farmazia eta bioteknologiako industriaren aldetik, ere erantzuna oso ona izan zen.

Bi erakundeek asmoa ideia eta esperientzien gainean eztabaidatu eta



hausnartzea zen, oinarri moduan, profesionalen eta erabiltzaileen ikuspegia hartuta. Modu horretan, inbertsio berrituen informazioa eta osasun jardueren balioa handitzea nahi izan zuten.

EUSKAL ENPRESEN MAHAI-INGURUA

Bilboko batzarreko datuak ondorengoak izan ziren: gaikako bederatzi sailetan 25 mahai-inguru, zazpi tailer, adituek lagundutako lau gosari, hiru konferentzia, 130 hizlari eta 723 komunikazio eta **horma irudi**. Guztira 1.600 izen-emate egon ziren, eta osasun arloko 2.000 profesional inguruk askotariko azalpenak eskaini zituzten.

Mondragon Health taldeak ospitaleei eta Osasun kudeaketari buruzko mahai-inguru arrakastatsua antolatu

AURKEZPENA

Bilboko alkate Iñaki Azkuna eta Osasun Sailburu Jon Darpon izan ziren, besteak beste, aurkezpen ekitaldian.

“Antolatzaileen esanetan batzarrak izan zuen erantzunean egon zen arrakastaren gakoa”.

zuen otsailaren 21ean, *Lidergoa eta berrikuntza Euskadiko Osasunaren Industrian izenarekin*. Besteak beste, punta-koak diren Progenika, Grupo Noraybio, Kiro Robotics eta Grupo BTI euskal enpresen ordezkariak izan ziren ekitaldian. Enpresa horiek egin zituzten ekarpenak asko eskertu zituzten parte hartzaile eta entzuleek. Mikel Alvarez Mondragon Healtheko zuzendari orokorra antolatu eta gidatu zuen saioa. Alvarezek azaldu zuen mahai-inguruan

bakarrik enpresa euskaldunak sartu nahi izan zituztela, modu horretan sektorean egiten dabiltzan lana erakusteko.

OSASUN SAILBURUAREN AURREIKUSPENAK

Batzarraren inaugurazio ekitaldian Jon Darpon Osasun sailburuak ongi-errotia eman zien gerturatutako guztiari. Horrez gain, datozen urteetarako aurreikuspenak ere jakinarazi zituen: "Unibertsaltasunaren oinarrian eta osasunaren ekonomia zuzentasunean sakondu behar dugu, gaur inoiz baino gehiago, osasuna asistentzia baino zerbait gehiago baita. Osasun publikoaren zerbitzua indartu behar dugu, sistemaren beraren iraunkortasuna bermatzeko. Horretarako, errezeta bakarra dugu: osagaiak alde batera utzi, zerbitzuak arrazionalizatu, hobeto erosi, beharren arabera ebaluatu eta lan egin, sen onarekin".

Nuria Chinchillak, IESE Business Schooleko Lan eta Familia Saileko zuzendariak, inaugurazio hitzaldia eskaini zuen. Lidergo berritzailearen gainean jardun zuen Chinchillak. Profesionalen behar pertsonal eta familiarretara egokitu behar den lan mundua aldarrikatu zuen. Horren harira, enpresa askoren **porrotaren** atzean onurak **kosta ahalak** atera beharra eta **malgutasun** falta daudela gaineratu zuen. Malguta goak diren enpresa eremuak lehiakorragoak eta produktiboagoak direla ere adierazi zuen.

Guillermo Dorronsoro Deusto Business Schooleko dekanok *Berrikuntza eta jasagarritasuna, makillaje izatetik bizkarrezur izatera* hitzaldia eskaini zuen. Garapen bidean dauden herrialdeetarako **euroguneak** datozen markadetan duen aurreikuspena oso txarra dela esan zuen, eta ekonomiako adituen esanetan irtenbidea berrikuntza eta ikerkuntzaren eskutik etorriko dela. Japonia, Hego Korea eta Txina inbertsio garrantzitsuak egiten ari dira ikerkuntzan; Japoniak eta Hego Koreak BPGaren % 3 inbertitzen dute; Europar Batasunaren helburua zena, hain justu. Azaldu zuen jasagarritasuna bermatzeko ezinbestekoa izango dela errotik etorriko den aldaketa, berrikuntzaren aldeko apustu garbia.

Amaierako hitzaldia paziente eta profesionalen zuzendua izan zen: *Pazientea eragingune bezala, eta giza*



kapitala balio jasagarri bezala. Fernando Alfaro Aguila-Realek berrikuntzaren kudeaketak duen garrantziaz jardun zuen. Modu horretan etorkizuna moldatu eta hobetzeko aukera dagoela gaineratu zuen. "Krisi garaietan gertatzen dira etorkizuna aldatuko duten berrikuntzak", azaldu zuen Alfarok. Hitzaldian pisu handia hartu zuen iraultza digitalak. Izan ere, beste arlo batzuetan ematen ari den iraultza digital hori dagoeneko hasi da osasun arlora iristen. Joera horren arabera pazienteak bere osasun egoeraren gaineko informazioaren kontrola izango du, eta medikuari zuzenean **helaraziko** dio.

Bestalde, Batzar Nazionala baliatu zuten hainbat **esker on** emateko. Fernando Lamata Cotanda omendu zuten osasun arloan izan duen ibilbideagatik. SEDISAko ohorezko bazkide izendatu zuten Francisco Villar Colsa, eta Osakidetzan egin duen lana nabarmendu zuten. Villar Osakidetzako zuzendari orokorra izan zen, bai eta Osasun Asistentziako zuzendari eta Txagorritxuko gerente ere. Gainera, Abril Martorell komisioko kide izan zen, eta *Osasuna zaindus* estrategia bultzatu zuen. ANDEko ohorezko bazkide Patricia Gomez Picard izendatu zuten.

Amaierako ekitaldian Jon Etxeberria Osakidetzako zuzendari orokorra parte hartu zuen. Gaur egun bizi du-

ERAKUSMAHAIA

Osakidetzak ere bere erakusmahaia izan zuen Billboko Kongresuan; harrera ona izan zuen parte hartzaileen aldetik.

gun egoera ekonomikoa ekarri zuen gogora Etxeberriak, eta horregatik berrikuntzak berebiziko garrantzia duela nabarmendu zuen. Ikerkuntzan, berrikuntzan eta hazkunderan egin behar dela apustua gaineratu zuen, eta azpimarratu zuen bakarrik modu horretan lehiatu ahal izango duela arrakastaz osasun publikoak. Azkenik, parte hartu zuten 723 lanen artean sariak banatu zituzten.

“Jon Darpon Osasun sailburuaren hitzetan: *Osasun publikoaren zerbitzua indartu behar dugu, sistemaren beraren iraunkortasuna bermatzeko*".

Esker on: *Agradecimiento.*
Eurogune: *Zona euro.*
Helarazi: *Hacer llegar, transmitir, enviar.*
Horma irudi: *Cartel mural, postal.*
Kosta ahala kosta: *A toda costa, cueste lo que cueste.*
Malgutasun: *Flexibilidad.*
Porrota: *Fracaso.*

URIBE ESKUALDEKO SONDIKAKO OSASUN-ZENTROA

FAMILIA-MEDIKUEN HURBILEKO ARRETA

SONDIKAKO OSASUN-ZENTROA 1994AN ZABALDU ZUTEN. SONDIKAKOAK, LOIU, ZAMUDIO, DERIO ETA LEZAMA KO OSASUN-ZENTROEKIN BATERA, TXORIERRIKO UNITATEA OSATZEN DU, URIBE ESKUALDEAREN BAITAN. SONDIKAN LAU FAMILIA-MEDIKUK, PEDIATRA BATEK, BOST ERIZAIN EK ETA BOST **LAGUNTZAILEK** EGITEN DUTE LAN. GOIZEKO 08:00ETATIK 20:00ETARA EGOTEN DA ZABALIK ETA, SONDIKAKO BIZTANLEEI ZERBITZUA EMATEAZ GAIN, LOIUKO HAINBAT HERRITAR ERE ARTATZEN DITU.



Jesus Garcia Garrastazu, Sondikako Osasun-zentroko arduraduna izateaz gain, Txorierriko Unitateko burua ere bada. Berak kontatu digu Sondikako Osasun-zentroa 1989an eratu zela, aurretik herrian medikua bazegoen arren. Gerora, kiroldegitik eta udaletxetik oso hurbil eraikin berri bat egin zuten eta han kokatu zuten zerbitzua, 1994an.

Sondikan **Lehen Mailako Arreta** eskaintzen dute eta 15 bat profesional daude lanean; bertan ez dago espezialistarik. Derioko Osasun-zentroa da Txorierriko handiena, eta han emagin zerbitzua, kardiologia, ginekologia eta errehabilitazioa ematen dute. Bestelako zerbitzuak behar badiutuzte, Areeta eta Deustuko Anbulatoriora eta Gurutzetako Ospitalera bidaltzen dituzte.

GOIZEZ ETA ARRATSALDEZ

Sondikakoak astelehenetik ostiralera ematen du zerbitzua, goizez eta arratsalde; asteburuetan, berriz, pazienteak Areetako (**etengabeko arreta gune**) eta Gurutzetako Ospitalera bideratzen dituzte.

Lehen bakarrik 08:00etatik 15:00etara egoten zen zabalik,

baina orain dela hiru urte inguru 20:00ak arte zerbitzua ematea erabaki zuten. Gainera, Sondikako profesionalak **etxeko arreta** ere ematen dute, bai Mungiako bidean dagoen Lauroraino, bai Artxandaraino.

Sondikako herritarrek Osasun-zentro honetatik gehien baloratzen dutena da 12 orduko zerbitzua ematea eta **luzaroan** familia-mediku berak egotea. “Beraientzat oso garrantzitsua da denbora luzean profesional berak egotea, harreman bat sortzearekin bat, alde bien arteko konfiantza ere indartzen delako. Gure kasuan profesional gehienok 20 bat urte daramagu bertan”, nabarmendu du.

Osasun-zentroan egin daitezkeen hobekuntzei dagokienez, azaldu dute orain dela bost bat urte onartu zela Osasun-zentroa handitzea eta aurrekontua ere idatzi zela, baina gerora ez dela ezer egin. “Aspalditik gelditu zitzaigun txiki eta, esaterako, ez daukagu bilerak egiteko gelarik”, diosku Garcia Garrastazuk.

HARREMAN ESTUA

Sondikako Osasun-zentroko langile gehienek urteak daramatzate bertan eta harreman estua dute pazienteekin. Aurrean, eserita, Txorierri eskualdeko osasun-zentroen arduradun Jesus Garcia Garrastazu.

TXORIERRIKO UNITATEA

Txorierri 18.000 pertsona inguru bizi dira eta izen bereko unitateak, Jesus Garcia Garrastazuk gidatzen duenak, ematen die guztiei zerbitzua. Eskualdean ez dago ospitalerik, baina herri bakoitzean osasun-zentro bat dago, eta Sondikakoa eta Deriokoa dira arratsalde ere zabalik egoten direnak.

Txorierri oso eskualde euskalduna da eta iraganean baserri girokoa izandakoa, gainera; Derio litzateke horietatik erdaldunena. Garcia Garrastazuk argitu digu erabiltzaile askok euskaraz jotzen dutela osasun-zentroetara eta profesional askok ere hala artatzen dituztela.

Etengabeko arreta gune:

Punto de atención continuada.

Etxeko arreta:

Atención a domicilio.

Laguntzaile: Auxiliar**Lehen Mailako Arreta:**

Atención primaria.

Luzaroan: *Durante largo tiempo, por mucho tiempo.*



LEINTZ GATZAGA

GATZAK IZENA ETA IZANA EMAN DIZKION
ERDI AROKO HERRIA



HIRIBILDU TXIKIA BAINA NORTASUN HANDIKOA DA LEINTZ GATZAGA. ELIKADURARAKO PLAZER DUGUN GATZAREN JARDUERAK EMAN DIZKIO HERRIARI IZENA ETA IZANA. ARRASATE, ARETXABALETA ETA ESKORIATZAREKIN BATERA LEINTZ BAILARA OSATZEN DU. MENDITSUA ETA **BIHURGUNETSUA** DEN LURRALDE HONEK 250 BIZTANLE DITU ETA 35 BASERRI DOTORE ETA EDER INGURUAN.

Gipuzkoako hego-mendebaldeko muturrean dago, Araba eta Gipuzkoa arteko mugan, Deba ibaia sorleku duen lekuan. Nekazaritza eta abeltzaintza oinarri, baserritarra izan da ingurunea zaindu eta gorde duena. Erdi Aroko hiribildua du, sortu zenean zazpi ate zituen, baina gaur egun bost dira mantentzen direnak. Hiriguneak harrizko jauregiak eta **dotorezia** handiko eraikinak ditu atari eta armarrak ikusgarri jantziak. XVI. mendekoa den Kapitangoa da herrian mantentzen den eraikin zaharrena.

LABIDEA TURISMO BULEGOA

Labidea Turismo bulegoa pilotalekuaren alboan dago, eta handik bideratzen dituzte bisitak. Gatz Museoak jende asko erakartzen du eta bisita asko izaten ditu. Dorletako Santutegiari nahiz herriari bisita egin, mendi irteeraz gozatu eta Jakion kontserba enpresa ikusi ere egin daiteke. Horretaz gain, azaroaren erdialdean San

Millan egunean egiten den artisau azoka ikustea gomendatzen dute. Herriko produktuak dastatzeko aukera ere ematen du Labideak. Bestalde, Dorletako Santutegiko Ama txirrindularien zaindaria da. Txirrindulari askok beren maillotak eskaintzen dizkiote, eta Santutegira bisita egiten dutenek maillot horien erakusketa ikus dezakete.

NATURGUNE ETA LASAITASUN ESKAINTZA

Gatzaren eta historiaren berri izateaz gain, natur inguruneaz eta lasaitasunez gozatzeko aukera zabala dago Leintz Gatzagan. Esaterako, mendi ibilaldiak oinez nahiz bizikletaz egin daitezke; erakargarrien artean, Hiruerretako ibilaldia dugu, Deba ibaiaren sorlekuraino doana. Eguneko planak egin daitezke, hainbat jatetxe daude eta bada gaua pasatzeko eskaintzarik ere.

GATZ MUSEOA

Gatzaren ekoizpenari buruz nahi adina jakiteko ezinbesteko **parada** da Gatzaga eta bertako museoa. Hiru ur mota dituen iturburua dago. Gurpil hidraulikoa eta soka sistema erabilita zortzi metro beherago dagoen ura altxatzen dute. Gatz Museoan gurpil hori ikus dezakegu, besteak beste. Gatz egiteko modua bera ere berezia da, suarekin egiten baitzen **lurrunketa**. Dorla izeneko etxoletan egiten zen gatz, eta hitz hori Dorleta Santutegitik dator; izan ere, ekoizpena behatzeko dorre bat omen zegoen. Herriko armarran dorre bat eta bi dorla daude gatz ekoizpenaren irudikapen gisa.

Bitxikeria gisa, mendiko lurra pribatizatzen hasi zirenean Leintz Gatzagak publiko mantendu zituen, ikazkinek, errementariak eta gatz ekoizleak egur hori behar zutelako. Gaur egun, oraindik udalerriko basoaren %80 publikoa da.

Asteburu eta jaiegunetan goizez egin daitezke bisitak 12:00etan euskaraz eta 13:00etan gaztelaniaz. Asteazken zehar talde bisitak erreserba bitartez (665 73 95 50).

www.leintzgatza.com

Bihurgunetsu: *Leno de curvas, sinuoso.*

Dotorezia: *Elegancia.*

Hiribildu: *Villa, núcleo de población.*

Lurrunketa: *Evaporación.*

Parada: *Ocasión, oportunidad.*

Hobeto
sentitzen
zara?

Euskaraz
bai sano!



**Ikur hau ikusten
duzunean egizu
euskaraz sano!**

Donde veas este símbolo podrás
ser atendido en euskera



**Osatuberri
planeta**



945 006 314

osatuberri@osakidetza.net

Zure osasun-zentroan gertatutako pasadizorik
kontatzeko badaukazu, idatzi gurera eta bisita
egingo dizugu argazki eta guzti:
osatuberri@osakidetza.net